BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




## KROSA: MAILA HANDIKO KORRIKALARIAK ZAPATUAN OÑATIN /10

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko ekainaren 20a • IV. urtea • 115. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**GEHIGARRI BEREZIA: SAN JUANAK ARRASATEN**

**KULTURA**
Mundu osoko 200 artista batuko dira Elorrioko Musikaire jaialdian /15

**EGURALDIA**
Giro onarekin hasiko da uda, baina gero nahastuz joango da /4

**Goienka2a**
Debagoieneko udal gehienek dagoeneko badute webgunea

**ASTEKO GAIA:** PRESOEK EZIN IZANGO DUTE EHU-N IKASI /2-3

## Ikasturte amaiera presoendako

Espainiako Gobernuak maiatzean egindako lege baten arabera, presoek ezin izango dute Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi. Ez hori bakarrik: legea datorren ikasturtean jarri beharko lukete indarrean, baina haren eragina sumatzen hasia da. Horren ondorioz, 409 presoren ikasketak bertan behera gelditu dira; horietatik 25, Debagoieneko preso politikoak. Espainiako Gobernuak erabaki hori hartu zuen, esanaz EHUk “mesedeko tratua” ematen diela euskal preso politikoei. EHUk eta presoen aldeko taldeek, berriz, jarrera hori gogor kritikatu dute.

## Istiluen artean hartu zuten kargua ibarreko alkateek

Udalbatzak osatu eta alkateak aukeratzeko joan den zapatuan gure ibarrean egin ziren osoko bilkura bereziak istilutsuak izan ziren herri gehienetan, Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan, batez ere. Alkateak aukeratu zituzten, baina ekitaldiak ez ziren normaltasun osoz egin, kasu gehienetan. Izan ere, herrietako plataformek udalbatzarretan izan beharko luketen ordezkaritza aldarrikatu zuten, legez baliogabeak izan arren, ibarrean jaso zituzten 8.140 botoei dagozkienak. Baliogabetutako herrietako plataformen jarraitzaileek udal ordezkari berrien aurkako oihuak egin zituzten behin eta berriz, alkateak aukeratzeko osoko bilkura bereziak boikoteatzeraino. Herri txikienetan, Gatzagan, Elgetan eta Antzuolan, esaterako, normaltasunez egin zituzten bilkurak.

Azpimarratzekoa da Aralarko eta EAJko zinegotzi batzuek ez zituztela karguak hartu, baliogabetutako plataformen ordezkaritza errespetatzearren.




Arrasaten, alkate ohiak hitza eskatu zuen, baina ezin izan zuen berba egin. UBANE MADERA



AGUSTIN GOENAGA

## Gorpuzti jaia Oñatin

Oñatik bere jai handienetako bat ospatuko du etzi, domekan: Gorpuzti jaia eta Eukaristiaren eta beste irudi sakratu batzuen prozesioa, eguerdian. Horixe izango da antzinako ospakizun horretako ekitaldi nagusia, baina ez bakarra: gaur hasi (egubakoitza) eta etzira bitartean hainbat ekitaldi interesgarri egongo dira Oñatin. Gaur goizean hasi dira ospakizunak, Oñatz dantza taldeak ikastetxeetan egindako dantza emanaldiarekin.









DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# 25 preso politiko, ikasketarik gabe

- EHUn ikastea debekatzen die presoei Espainiako Gobernuko lege batek
- EHUk “mesedeko tratua” ematen ziela-eta, matrikulatzeko debekua dute

LEIRE KORTABARRIA

Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatuta dauden 25 preso politiko debagoiendarrek ezin izango dute euren ikasketekin segitu. Espetxean Hizkuntza Eskola Ofizialean edo EGA agiria ateratzeko ikasketak egiten ari zirenei matrikulak ezereztatu dizkiete dagoeneko.

Ez hori bakarrik. Presoak onartzen zituen Estatuko unibertsitate bakarra zen EHU, eta Bergarako UNEDek kudeatzen zituen ikasketok. Guztira Estatu osoko 409 presori eragiten die debeku horrek.

### “MESEDEKO TRATUA”

Espainiako Gobernuak egindako Espetxeetako Lege Orokorraren aldaketa baten ondorio da. Lege horren arabera, aurrerantzean, presoek ezin izango dituzte euren ikasketak zentro jakin batzuen bidez baino egin. Zentro horiek dira espetxeekin hitzarmen berezi bat dutenak. EHUk ez du halako hitzarmenik, ez eta Bergarako UNEDek ere.

Espainiako Barne Ministerioak dio lege horren helburua dela “ikasleen berdintasuna bermatzea”. Izan ere, EHUko hainbat irakaslek mehatxupean egotea eta egoera horretan presoen azterketak ezin modu onean baloratzea salatu zuten, eta horren harira, Estatuko Gobernuak leporatu zion EHUri preso politikoei “mesedeko tratua” ematea. EHUk ukatu egin ditu salaketa horiek.

Hala ere, legea indarrean dago oraindik hasita –nahiz eta, juridikoki, hori bidezkoa ez izan–, eta 409 preso –tartean, ibarreko 25 preso politiko– hezkuntza jasotzeko eskubide barik geratu dira. Horien aukera bakarra izango da Madrilgo UNEDen matrikulatzea; baina kontuan izanda EHUko ikasketa asko ez dituztela han eskaintzen eta tramite asko egin behar direla, litekeena da preso askok euren ikasketak bertan behera utzi behar izatea.

*EHU azterketak bidaltzen ari da espetxeetara, jakinda ez dizkiotela onartuko*

*Aurrerantzean, Madrilgo UNEDen bakarrik matrikulatu ahal izango dira presoak*

*Hizkuntza Eskola Ofizialean edo EGA egiteko ikasten ari ziren presoak ere kaltetu ditu legeak*




ARGAZKI PRESS

Preso dauden ikasleen eskubideen aldeko mobilizazioak egin dituzte Unibertsitateko hainbat irakaslek.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA



gerora begira

eskaintza AKADEMIKOA

goi eskola politeknikoa

ARRASATEko campusa Telf: 943 79 47 00
- 1. Zikloko Ikasketak
  Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa
  Sistemen Informatikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Elektronikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Diseinuan Injinerutza Teknikoa
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
- 2. Zikloko Ikasketak
  Industri Antolakuntzan Injinerutza
  Industri Elektronikan eta Automatikan Injinerutza
  Informatika Injinerutza
  Industri Injinerutza

GOIERRIko campusa Telf: 943 88 00 62
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa

LEA-ARTIBAIko campusa Telf: 94 616 90 02
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa Polimerotan

enpresa zientzien fakultatea

OÑATIko campusa Telf: 943 71 80 09
- 1. Zikloko Ikasketak
  Gestio Informatikako Injinerutza Teknikoa
  Zuzendari Idazkaritza
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura:
  - Bide kurrikularra: Finantza Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Merkatal Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Erakundeen Kudeaketa

ELGOIBARko campusa Telf: 943 71 41 32
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura

BIDASOAko campusa Telf: 943 63 91 29
Enpresa Zientziatan Diplomatura
- Bide Kurrikularra: Enpresa Logistika eta Garraioa
- Bide Kurrikularra: Nazioarteko Merkataritza

humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea

ESKORIATZAko campusa Telf: 943 71 41 57
- 1. Zikloko Ikasketak
  Irakasle Ikasketak:
  - Haur Hezkuntza
  - Hezkuntza Berezia
  - Atzerriko Hezkuntza
  - Heziketa Fisikoa
- 2. Zikloko Ikasketak
  Psikopedagogian Lizentziatura
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Humanitateak-Enpresa Lizentziatura

INSKRIPZIO EPEA: ekainak 20ra arte

www.mondragon.edu

**JOSE MARI ETXANIZ** / ESPETXEAN IKASI ZUEN

# “EHUk ez du ezer egin ikasturtea ikasle presoendako salbatzeko”

**Jose Mari Etxaniz bergararra 21 urtetik gora egon zen preso. Horietatik 12 unibertsitate ikasketak egiten eman zituen.**

**Zein ikasketa egin zenituen preso zeunden bitartean?**

Kazetaritzako bi urte egin nituen; gero, Irakasle Ikasketak egin nituen; eta azken urteotan, Zuzenbidea hasi nuen. Hirugarren hori utzi egin nuen.

**Zer dela-eta erabaki zenuen ikasketei heltzea?**

Preso egoteak dakarrenak bultzatuta… Espetxean buruari buelta gehiegi ematen zaizkio, eta liburuei heltzea ihes mota bat izan zen niretako, eta hainbeste gogoeta ez egiteko modu bat ere bai. Bestalde, militantziagatik ere egin nuen, eta irten ondoren, pertsona jantzia izateko. Baina espetxea ez dago prestatua ikasketarako. Konstantzia handia izan behar da, eta zailtasun guztiak ipintzen dituzte.

**Zeintzuk izan ziren, zuretako, zailtasun handienak?**

Asko. Liburuak berandu iristen ziren –euskarazkoak, zer esanik ez…–, eta batzuetan, espetxeko funtzionarioek ez ziguten bi liburu baino gehiago erabiltzen uzten, kupoa beteta genuela-eta; bestalde, ni isolamenduan egon nintzen, eta argirik ere ez zidaten uzten… Behin, ikasturtea bukatu eta gero iritsi zitzaizkidan liburuok. Horren aurrean ezin da ezer egin.

**Bazenuen harremanik beste ikasle batzuekin?**

Tarteka bai. Egin nituen harreman onak jendearekin; baina, azken baten, sakabanaketaren helburu bat hori da, alegia, harremanak apurtu, aberastasun horrekin bukatu.

**Zer deritzozu oraingo ikasle presoen egoerari?**

Espetxeetako Lege Orokorra aldatuta bultzatu du Espainiako Gobernuak legedi berria, eta 2003/2004 ikasturtean jarriko litzateke indarrean. Lege mota horiek ezin dira atzeraeraginezkoak izan, baina eurek dagoeneko jarri dute indarrean, eta hori salatzekoa da. EHU, bestalde, ez da ezer egiten ari ikasturte hau, gutxienez, salbatzeko. EHUk badaki presoei bidaltzen dizkien azterketak bueltan etorriko zaizkiola, legeak hala agintzen duelako, baina ez du ezer egiten hori konpontzeko. Bere burua garbitzeko mugimenduak dira.

**Preso politikook “mesedeko tratua” jasotzen zenutela esan izan da…**

Zer esan daiteke horren aurrean… Horrek ez du ez hanka eta ez bururik. Espetxean ikasten ari garenok edo ibili ginenok ditugun oztopoak ez dituzte beste ikasle gehienek izaten. Guztia aurka dugu ikasteko, eta konstantzia eta ahalegin handiarekin bakarrik ateratzen ditugu aurrera ikasketok.

**Espetxean egindako ikasketak erabiltzen dituzu zure eguneroko bizitzan, orain?**

Ez; nik beste lanbide bat dut gaur egun, ikasketokin zerikusirik ez duena. Edozelan ere, nik uste dut ikasten dena beti dela baliagarria.


LEIRE KORTABARRIA

> *“Debeku hori, legez, ezin da datorren ikasturtera arte aplikatu; baina indarrean dago”*

> *“Espetxean dena aurka duzu ikasteko, eta beste ikasle batzuek ez dituzten oztopoak dituzu”*

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

# “Gezurrez belzten ari dira EHUren izena”

**Euskal Herriko Unibertsitateak auzi horren gainean bere jarrera jakinarazi du, hainbat komunikatu ofizialen bidez.**

Maiatzaren 7an kaleratutako ohar batzuetan, EHUko errektore taldeak ukatu egin zituen Espainiako Gobernuak egindako hainbat leporatze: “Guztiz faltsua da EHUk tratu berezia eman dienik ikasle presoei: 01/02 ikasturtean matrikulatutako 272 ikasle presoetatik lauk baino ez zuten lizentziadun edo diplomatu titulua lortu (…). Onartezina da zelako arinkeriaz ari diren EHUren izen ona gezurrez belzten”.

Aldi berean, EHUk leporatu egin zion Justizia Sailari bere eskumenetik kanpo jardun izana lege hori indarrean jartzerakoan: “Onartezina da euskal buruzagi politikoren batek EHU bezalako erakunde heldu bati esan gura izatea zer egin behar duen (…). Justizia ministroak hedabideei Espetxeetarako Lege Organiko Orokorra aldatzeko proiektuaren berri eman bazien ere, unibertsitateak ez du jaso inongo jakinarazpen ofizialik horren gainean”, adierazi zuen errektore taldeak.

EHUren jarrera auzi horretan izan da preso dauden ikasleei azterketak postaz bidaltzea, UNEDen bitartez, orain arte egin izan duen moduan; hala ere, hainbat irakasle eta hezkuntza munduko arduradunek leporatzen diote hori egin duela jakinda azterketok bueltan etorriko zitzaizkiola, legeak hala agintzen die-eta espetxeetako zuzendariei. “Hori egin ordez, EHUk Espainiako Gobernuarekin negoziatu beharko luke”, diote arduradun horiek.

Erakundeak ez du jakinarazi datorren ikasturterako preso dauden ikasleekin zer egingo duen.

**MARI CARMEN GALLASTEGI** / IRAKASLEA

# “Gobernuak bere kasa hartu ditu erabakiak”

**Mari Carmen Gallastegi bergararra EHUko irakasle da, eta unibertsitateko irakasle askoren iritzia plazaratu zuen artikulu baten.**

“ETA irakasle batzuk mehatxatzen hasi zenetik, giroa zakartu egin da. Bestalde, Estatuko Gobernuak EHUri debekatu egin dio ETAko presoak ikasle bezala izatea”, dio Gallastegik. Zera ezhazten du: “Arnasa barik utzi gaituena da hain modu arinean horrelako susmoa zabaldu izana, frogatu barik nork, zelan eta non eman dion ETAko presoei mesedeko tratua”.

Irakasle horrek onartu egiten du posible dela salbuespenak egotea ikasle guztiei eman beharreko berdintasun tratuan, baina zera esaten du: “Horrela izan bada, zergatik ez diete errudunei espedientea irekitzen eta benetan jakinarazten den zein irakaslek eman dien presoei faborezko tratu hori?”.

GOIENKARIArekin berba egiterakoan, Mari Carmen Gallastegik esan zuen “ulergarria” iruditzen zaiola mehatxatutako irakasleek sentitzea ezin dituztela presoen azterketak zintzotasunez baloratu, baina zera dio: “Nik ulertzen dudanez, irakasle horien salaketek bultzatu dute Espainiako Gobernuak lege hori egitea. Ez da eztabaida arrazoiturik ireki horren gainean; horren ordez, alde batek neurriak hartu ditu, bere kabuz. Erakunde oso baten gainean susmo larriak hedatu dituzte, eta ministerio batek bere kabuz hartu ditu hainbat erabaki. Ulergarria iruditzen zait errektoretzaren haserrea; EHUk ez du tratu hau merezi”, dio.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

koma,
Ikastea erraza egiten zaizun hizkuntza akademia
UDAKO IKASTARO TRINKOAK
Ingelesa, frantsesa, alemaniera, italiera…
Informa zaitez!

Olakua 7 behea • 20560 OÑATI
943 71 82 08 • Posta-e: cursos@komalingua.com • www.komalingua.com

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Teknologia berrienari esker, analisi biomekanikoak egiten ditugu. Zure oinendako kirol plantilla eta plantilla ortopediko erosoenak neurrira izango dituzu. Galdetu konpromiso barik.
Zure oinen erosotasuna, gure bermea.
Barrenkale 15-17
Tel./Faxa: 943 76 25 03
BERGARA




JULEN IRIONDO

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatutako ekitaldiaren berri eman zuten ibarreko hainbat kidek atzo, eguena.

# Euskararen ofizialtasuna eskatzeko auto karabana egingo dute Altsasura

*Debagoienetik ere autoak irtengo dira bihar, zapatua, arratsaldean*

N. ZUBIETE / L. KORTABARRIA

**Debagoieneko hainbat euskaltzale egongo dira bihar, zapatua, Euskal Herrian Euskaraz taldeak Altsasun egingo duen ekitaldian. Auto karabana egingo dute, 17:00etan abiatuta Aretxabaletatik. Ibar osoko lagunek hartuko dute parte.**

Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko ekitaldia izango da Altsasukoa. Horren gaineko azalpenak emateko, prentsaurrekoa egin zuten Euskal Herrian Euskaraz-ko ibarreko kideek atzo.

Taldeak gaur egun euskarak dituen mugak salatu zituen: "Administrazioan muga handiak daude, ez bakarrik Euskal Herriaren zatiketa administratiboagatik; erakundeetan, Justizian, Ertzaintzan, Osakidetzan... euskal hiztunon eskubideak modu larrian urratzen dira", esan zuen Iñigo Arregi Euskal Herrian Euskaraz-ko debagoiendarrak. Salaketa horiek plazaratuko dituzte bihar Altsasun.

Euskal Herrian Euskaraz-ek bere aldarrikapen ekitaldia egingo duen egun berean, bihar, alegia, *Berria* euskarazko nazio egunkariaren lehen zenbakia kaleratuko dute. Horren gainean zera esan zuen Iñigo Arregik: "Taldeko kideok ilusioz hartzen dugu egitasmo hori; izan ere, egunkari berriak euskararen benetako erabilpen eremuaren perspektiba orokorra ematen lagunduko du, bai erabilpen mailari, bai eta euskararen benetako lurraldetasunari dagokionez ere".

# Giro onarekin hasiko da uda, baina nahastuz joango da

*Pello Zabalak dio lehenengo zatia izango dela ederrena*

LEIRE KORTABARRIA

Uda parteko eguraldia ona eta sanoa izango da, lehen zatian; baina gero nahastu egingo da, seguruenik. Hori da Pello Zabala Arantzazuko Meteorologia Behatokiko arduradunaren iritzia, udako tenporak behatu ondoren. Ekainaren 11n, 13an eta 14an izan ziren tenporok.

"Eguraldi sanoena uztailaren erdialdera izango dugu, eta azken egunotan izaten ari garenarekin bat egingo du", azaltzen du Pello Zabalak. Hortaz, eguraldi ona, tenperatura altua eta oskarbiak izango dira nagusi.

Horren ondoren, gauzak aldatzen hasiko dira, Zabalaren iritziz, nahiz eta tenporek ez zuten hori guztiz argi utzi: "Nik neuk espero dut eguraldia aldrebestea eta itsas aldeko haizea sartzea. Horrek, tarteka, euria egitea ahalbidetuko du. Hala egingo ez balu, jasanezineko tenperatura beroa izan dezakegu", azaltzen du meteorologoak. Pello Zabalaren esanetan, ekainaren 13ko tenporek denetarik utzi zuten: Euskal Herriko barnealdean oso egun lehorra egin zuen; baina itsas aldean giro nahasia gailendu zen. Hortaz, uztailaren erdialdetik abuztuaren erdi aldera arte, tarte horretarako aurreikuspenak zailagoak dira egiten. Pello Zabalak dio, berak eguraldi lainotsua egingo duela espero badu ere, "edozer gauza" gerta daitekeela. Baliteke bero itogarria egitea, hortaz.

Udaren hirugarren eta azken zatirako, berriz, gauzak definituago geratu ziren, ekainaren 14ko tenporen arabera: "Giro zikin samarra izango dugu abuztu erdialdetik udazken hasierara arte", dio Zabalak. Hilaren 14an giro nahasia egon zen, behelaino eta, tarteka, giro onarekin.




## Mendi ibilaldia tren azkarraren aurka

Lastertasun Handiko Trenaren aurka protesta egiteko, mendi ibilaldia egin zuen domekan, Udala eta Udalatx inguruetan, AHT Gelditu! Elkarlana taldeak. Obra erraldoi hori dela-eta, egiten diharduten indusketen gaineko informazioa zabaldu, eta eztabaida eta jakin-mina sortzea izan zen ibilaldiaren helburua. Talde horretako kideak Debagoieneko Lurralde Zatiko Planak proposatzen dituen egitasmoekin ere kezkatuta agertu dira. Ibilaldia amaitu ostean, mokadua hartu zuten Udalan. /E.A.

# Arizmendi Ikastolaren proiektu bati lehen saria eman dio Armeria Eskolak

*Zubi altxagarri bat aurkeztu du Arizmendik lehiaketa teknologikora*

Eskoriatzako Arizmendi Ikastola-Almen Guneak irabazi du Eibarko Armagintza Eskolak antolatzen duen lehiaketa teknologikoa. Debagoiengo, Debabarrengo, Lea Artibaiko, Durangaldeko eta Urolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei dago zabalik, eta bigarren urtez antolatu dute. *Zubi altxagarria* izeneko proiektua izan da irabazlea. Pila baten bidez gora eta behera egiten duen zubi bat aurkeztu dute Almengo ikasleek. Gaur goizean egin dute sari banaketa, Eibarren. 1.500 euro, trofeoa eta diploma jaso dituzte proiektua egin duten neska-mutikoek. Lehiaketa horrekin, prestakuntza teknologikoa eta ideia irudimentsuak bultzatu gura dituzte antolatzaileek. /E.A.

LAN ESKAINTZA
Haurtzaindegietarako eta zentro publikoetarako deialdiak laster
HAURTZAINDEGIKO LANGILEAK
Haurtzaindegian LH–2 eskatzen da
Informa zaitez!
943 444 509

Hilarion jatetxea-taberna
Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69
Eguneko menuak
Karta zabala
Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak

JUBAR®
ATEAK, S.L.
Kataide industrialdea
18. 110 Postakutxa
ARRASATE
Tf.: 943 79 10 20
Faxa: 943 79 08 17
Posta elektronikoa:
jubarateak@euskalnet.net
■ Garajeko ateak
■ Burdinazko pertsianak
■ Automatismoak
■ Ate sekzionalak
■ Konponketak
■ Urrutiko aginte tresna homologatuak
■ Azkar irekitzen diren ate biribilduak
■ Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
DQ
E.R. 02/516
ISO 9002/94
ENAC-ek akreditatua

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Debagoieneko Lurralde Zatiko Planaren gaineko informazioa zabalduko du EHNEk

Lurraldearen Zatiko Planaren gaineko informazioa herritarrei helarazteko kanpaina egingo du EHNE baserritarren sindikatuak. Izan ere, EHNEren iritziz, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dute gure herrietan eta herritarrengan hainbesterako eragina izango duen plan horren gaineko nahiko informazio eman. Plan horretan proposatzen dena azaltzen duten planoak eta egitasmoaren gaineko informazioa jarri ditu herritarren eskura EHNEk, Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatiko udaletxeetan eta Bergarako Nekazaritza Ganberan. /E.A.

### Orain dela hiru aste desagertutako Julian Gantxegiren gorpua aurkitu dute Lekeition

Maiatzaren 21a ezkero desagertuta zegoen Julian Gantxegi Belategi bergarararraren gorpua domekan aurkitu zuten Ondarroa eta Lekeitio artean dagoen Mendexa auzoan. Itsas ertzean, haitz artean, aurkitu zuen gorpua lekeitiar batek. Julian Gantxegi maiatzaren 21a ezkero zegoen desagertuta. Haren bila ibili ziren bi astez senideak, lagunak eta Ertzaintza, baina ez zuten arrastorik aurkitu, arrantzan egiteko erabiltzen zuen materiala bakarrik. Ikerketen arabera, itsasoak itzuli zuen haitz artera Julian Gantxegiren gorpua. Haren aldeko hileta elizkizunak martitzenean izan ziren Bergaran. /E.A.

### MCC taldeak 25 milioi euro bideratuko ditu MUra datozen bost urteotan

MCCk 25 milioi euro (4.000 milioi pezetatik gora) bideratuko ditu Mondragon Unibertsitaterako hurrengo bost urteotan. Lau arlotan banatuko da diru kopuru hori: batetik, doktoretza programak indartzeko; bestetik, hezkuntza prozesuan teknologia berrien erabilera bultzatzeko; hirugarrenik, Mendeberri egitasmoa abian jarri eta sendotzeko; eta, azkenik, ikerketa bultzatzeko. Urtean hiru milioi euro bideratuko ditu ohiko inbertsio moduan eta azpiegiturak hobetzeko, eta beste 10 milioi euro, inbertsio berezi gisa. /E.A.

# Bihartik aurrera erosi ahal izango dugu 'Egunkaria'-ren ordezko 'Berria'

*Lehen zenbakian 'Berria'-ren sorreraren gaineko argibideak emango dituzte*

IRATI AGIRREAZALDEGI

***Euskaldunon Egunkaria* itxi eta ondorengo egunean haren jarraipena aurkitu genuen kioskoetan: *Egunero*. Ordutik hona lau hilabete inguru pasatu direnean, *Egunkaria*-ko langileek *Berria* egunerokoa kaleratuko dute bihartik aurrera.**

Joan den zapatuan Donostian aurkeztu zuten *Euskaldunon Egunkaria*-ren ondorengoa izango den *Berria* egunerokoaren zero zenbakia. Bihartik aurrera egunero izango dugu kioskoetan. Zapatuan eta domekan *Berria*-ren 50.000 ale kaleratuko dituztela iragarri dute arduradunek.

Egunkariak izaera berdintsua izango badu ere, itxura berrituta azalduko da. Bertako lantaldeak prestatu du 64 orrialde izango dituen egunkariaren diseinua. Xabier Lekuona zuzendariordeak zera esan du: "Egunkari irakurterraza egiten saiatu gara, garbiagoa, sinpleagoa, baina ez horregatik mamirik gabea".

Edukietan ere lehengo hari beretik segituko dute. Gehigarriek pisu esanguratsua izango dute *Berria*-n. Udan 16-20 orrialdeko *Itzalean* gehigarria kaleratuko dute egunero. Bertan, udako ikastaroak, bidaiak, kultura ekitaldiak, jaiak, gastronomia, eta beste hainbat gai landuko dituzte.




*Berria*-ren aurkezpeneko 0 zenbakia.

> *'Berria'-k 64 orrialde izango ditu eta uda ostean eguneroko alearekin gehigarri bat kaleratuko dute*

Uztailean hasiko dira zapatuetan *Mantangorri* umeen gehigarria eta domeketan *Igandea* gehigarria ateratzen. Azken horrek lehengo *KZ*-ren kutsua izango du. Uda ostean, berriz, egunero jasoko dugu gehigarriren bat *Berria*-rekin.

Lehenengo zenbakian *Berria*-ren gaineko argibideak jasoko ditugu gehigarri baten. Bestalde, gaiak oraindik zehazteke badaude ere, lehen astean, besteak beste, Alberto Ormaetxea Realeko entrenatzaile ohia, Pablo Sastre idazlea, Juan Jose Castejón Nafarroako presidente izandakoa... elkarrizketatuko dituzte. Bestalde, zapatuetan asteko kronika politikoa kaleratuko dute.

**EKITALDIAK DEBAGOIENEAN**

Horren harira, Arrasateko Realaren aldeko taldeek Realaren partidua eman zuten domekan Uarkape pilotalekuan. *Euskaldunon Egunkaria*-k ere izan zuen bere lekua ekitaldian: *Egunkaria*-ren aldeko porra egin, pegatinak eta pinak banatu eta zaleek atsedenaldian *Egunkaria*-ren bideoa ikusi ahal izan zuten. Elgetan, berriz, *Egunkaria*-ren aldeko kirol jaia izan zen zapatuan.

### Goienak eta Fagorrek hitzarmena egin dute hainbat bideo sortzeko

Fagor kooperatibak eta Goienak lankidetza hitzarmena sinatu dute oraingo astean. Hitzarmen horri esker, Debagoiengo industriaren historia euskaraz jasoko duen bideo bilduma laburra egingo du Goienak. Hain justu, ordu erdiko 12 dokumental ekoiztuko ditu GOITBk, modu dibulgatzaile eta pedagogikoan. Fagorrek, ostera, diruz lagunduko du egitasmoa. Lankidetza hitzarmena martitzenean sinatu zuten Fagor taldeko eta Goienako presidenteek, Jabier Gantxegik eta Estepan Plazaolak. /E.A.



Ondo pasau jaixak!
KANPAZAR ERRETEGIA
SAN JUANAK 2003
• Astelehena 23
• Martitzena 24
Egun osoa zabalik
• Eguaztena 25
• Eguena 26
Gauean itxita
94 658 29 12 • 669 30 26 86 / Kanpanzar gaina / ELORRIO

Grupo ULMA
ULMA, Koop. E. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
DEIA

Eguna: 2003ko ekainaren 27a
Ordua: 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena
Tokia: Oñatiko Kultura Etxea

GAI-ZERRENDA
1. AURREKO AKTAREN ONESPENARI BURUZKO TXOSTENA (02.06.28an egindako Batzar Nagusiari dagokio)
2. 2002KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONESTEA
3. 2002KO EKITALDIKO BALANTZE ETA KONTUAK ONESTEA
4. EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
5. ULMA TALDE MAILAN APLIKAZIO OROKORREKO ETA ARAUDI IZAERAKO GAIEI BURUZ KOOPERATIBA BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIEK HARTUTAKO ERABAKIAK BERRESTEA
6. OÑATI UNIBERTSITATE ETA TEKNOLOGI HIRI SOZIETATE ANONIMOAN PARTE HARTZEARI BURUZ KONTSEILU ERREKTOREAK HARTUTAKO ERABAKIA BERRESTEA
7. KAPITAL-GEHIKUNTZA
8. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
9. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
10. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
11. ESKARI ETA GALDERAK

2003ko ekaina
OHARRA: Kontabilitate Liburuak bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da.

# C3 Pluriel Berria

**URTEKO CABRIO-A**

Urteko Cabrio-a 2003

**MAGIKOA INONDIK ERE**



CITROËN-ek gurago du Total.

Berlina, Berlina paronamikoa, Cabrio, Spider, Pick Up? C3 Pluriel berria dator. Ez da auto bakarra, bost baizik!!! Dena baten.
75 ZPko 1.4i eta 110 ZPko 1.6i 16 v motorrak; SensoDrive martxa-kaxa; aginteak bolantean; aire-girogailua –aukeran–, lau aire-zaku, aluminiozko lau hagun (llanta), lau kristal-jasogailu elektriko, atzerako ispilu elektriko bi, lainotako faroak, irrati-CDa...
Teknologiaren kapritxo hutsa. Genevako automobil-erakusketan urteko Cabrio onena izendatu zuten.
Eta zuk zer-nolako autoa gidatu gura duzu?
**Citroën C3 Pluriel berria. Magikoa inondik ere**.

ABC 2003ko AUTO ONENA
**Citroën C3**

Kontsumo mistoa (l/100 Km) CO2 igorpena (g/Km): C3 Pluriel: 6,8-6,6 / 157/164

Citroën informazioa: 902 44 55 66 **www.citroen.es**

Etor zaitez:

**CHAPIME TAILERRAK SCL** Citroën-eko kontzesionario Ofiziala.
San Andres auzoa 5 • Tel.: 943 79 45 22 • ARRASATE

**CITROËN**

ANTZUOLA

### Ondarreko jaiak eta San Juanak ospatuko dituzte aste bukaeran

Hamar urteren ostean, Gorpuzti jaiak ospatuko dituzten Ondarre plazako auzotarrek. Bihar, zapatua, hasiko dituzte ekitaldiak: umeendako jolasak eta krosa egongo dira arratsaldean. Iluntzean, berriz, auzokoek afaria egingo dute. Domekan, bestalde, Gorpuzti Eguna ospatuko dute. 12:00ak aldera prozesioa egingo dute elizatik Ondarrera.

Uzarragan, berriz, San Juanak ospatuko dituzte. Meza egongo da 10:00etan, eta mezaren ondoren herriko dantzariek saioa egingo dute auzoko plazan. /A.I.

ARAMAIO

### Gaur, barikua, Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte

Lau bikotek lortu dute finalera iristea Bareak antolatutako Pilota Txapelketan. Gaur izango dira partiduak, 18:00etan hasita. Lehenengo gaztetxoenek jokatuko dute: Raul-Ekain / Senar-Mikel, eta gero, alebinek: Bingen-Iñaki / Igor-Iker. Partiduak bukatutakoan, trofeoak eta opariak banatuko dizkiete txapelketan parte hartu duten pilotari guztiei.

Horren ostean, 21:15ean, ETBko Lau t'erdiko Sariketaren barruan final-laurdenak jokatuko dituzte. /U.M.

ELGETA

### Ekainaren 27an amaituko da Udako Kirol Kanpainan izena emateko epea

Udako Kirol Kanpaina izango da uztailaren 7tik 24ra. Goizez zein arratsaldez izango diren kirol ekintzak adin tarte guztiendako antolatu dituzte. Umeendako eta gaztetxoendako jarduerak dira gehienak, eta helduendako *aerobic-fitness* saioak eta Squash Txapelketa prestatu dituzte.

Eskola umeendako aisialdi ekintzak eta hainbat kirol batzen dituen ikastaroa izango da. Ikastaroetan parte hartzeko udaletxean eman behar da izena, ekainaren 27a baino lehen, betiere. /I.A.



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

### Ibarreko 30 enpresak topaketak egin zituzten atzo, Miguel Altuna Institutuan, Kudeaketako Sistema Aurreratuen esperientziak trukatzeko helburuarekin

Debagoieneko 30 enpresatako 40 enpresaburu eta teknikari batu ziren atzo, Miguel Altuna Institutuan, Kudeaketako Sistema Aurreratuen Esperientzia Trukaketarako I. Topaketetan. Lanbide Heziketako Miguel Altuna Institutuak antolatu ditu topaketok, Kudeaketako Sistema Aurreratuek enpresendako duten garrantziaz jabetuta. Topaketen egitaraua 10:00etan hasi zen, eta Institutuko zuzendari Iñaki Larrañagak eman zion hasiera. Horrekin batera, bi hitzaldi izan ziren: bata, Tomas Orbea AENORreko zuzendari-albokoak egin zuen; bestea, berriz, Miguel Lazpiurrek, Bergarako Lazpiur lantegiko zuzendariak. Jardunaldiak eguerdian bukatu ziren eta Jose Luis Aurrekoetxeak, IHOBEko zuzendariak, eman zien amaiera./M.B.

OÑATI

## Udarako egitarau berezia prestatu du Turismo Bulegoak

Udako denboraldia hastera doan honetan, egitarau berezia aurkeztu berri du Oñatiko Turismo Bulegoak. Oraingo domekan bertan hasiko dituzte ekintzok, Gorpuzti Egunean, hain zuzen ere. Egun horretarako bisitaldi gidatu berezia antolatu dute; unibertsitatea eta eliza bisitatu ondoren, Santa Ana antzokira joango dira, prozesioan parte hartuko duten pertsonaiak zelan janzten diren ikustera.

San Migel zelan janzten den ikustea, batez ere, harrigarria da. Orduak pasatzen ditu arropa eta armadura janzten, eta hainbat laguntzaile izaten ditu horretarako. Apostoluak ere han janzten dira.

Bisitaldi gidatu horretan parte hartu nahi izanez gero, Turismo Bulegora deitu beharko duzue, 943 78 34 53 telefono zenbakira, hain zuzen ere.

Baina ez da domekakoa Turismo Bulegokoek prestatu duten ekitaldi berezi bakarra; izan ere, Gorpuzti Eguneko bisitaldi gidatuez gain, Natur Eskolakoekin lankidetzan sei ibilbide gidatu antolatu dituzte udako hilabeteetarako.

Uztailean, abuztuan eta irailean hainbat ibilaldi gidatu egiteko aukera izango dugu Oñati inguruko mendietan. Horietan parte hartzeko ere Turismo Bulegora deitu behar da aldez aurretik.

**ALOÑA MENDIK BATZAR NAGUSIA**
Gaur, egubakoitza, 19:30ean, ohiko batzar nagusia egingo du Aloña Mendik elkartearen egoitzan, Atzeko kalean. /A.I.

**Zertzelada**

**Gorpuzti Egunerako, domekarako, bisitaldi gidatu berezia antolatu dute: prozesioko pertsonaiak zelan jantzten diren ikusi ahal izango dugu.**

ARRASATE

## Hainbat berrikuntza aurkeztu dituzte Industria Erakusketan

Makina berri bat, eskultura bat, gida eta maskota aurkeztu ditu Arrasateko Industria Erakusketak.

Makinari dagokionez, oso makina berezia da: Euskal Herrian bakarrenetarikoa, eta erakusketako pieza zaharrena. Hain zuzen ere, XVIII. mendeko tornua ekarri dute Industria Erakusketara.

Eskulturari dagokionez, Melina López eskulturagile arrasatearrak egindakoa da. Emakume batzordeak emandako beka bati esker egin du eskultura; industriarekin lotuta dago.

Bukatzeko, erakusketan dagoena iragartzeko gida plazaratu dute. Eta erakusketaren maskota, *Biratsu*, aurkeztu dute. /U.M.



GOIATZ ARANA

**Melina López eskulturagileak egindako lana dago ikusgai.**

ARETXABALETA

### Hainbat amuarrain hilda agertu ziren Urkuluko urtegian martitzenean

Herritar batek, martitzenean ARETXAGAZETAra egindako dei baten, aditzera eman zuen Urkulun 50 amuarrain inguru hilda zeudela. Itxura guztien arabera, norbaitek urtegia amuarrainez birpopulatu gura izan zuen. Hala ere, eta emaitza ikusita, ez zuen lan hori modu egokian egin. Gipuzkoako Ur Partzuergoko arduradunen iritziz, arrainok garaiera handitik bota zituzten, eta uraren kontra kolpea hartu eta hil egin ziren. Dena dela, uraren oxigeno maila egokia dela ziurtatzeko azterketa egin zuten. /A.L.

ESKORIATZA

### 'Matxain' plater tiratzaileak piztuko du San Juan Sua astelehen gauean

Eskoriatzan ere San Juan bezpera ospatuko dute astelehenean. Arratsaldean gaztetxoak eta gurasoak ludotekan batuko dira; txorimaloak egingo dituzte eta egur eta lore bila joango dira. 17:30ean, bonba japoniarrak botako dituzte, eta gero, koadrilen arteko lehiaketa egingo dute.

Gauean San Juan sua egingo dute, eta aurten Jesus Arroiabe *Matxain* plater tiratzaileak piztuko du. *Matxain*-ek hainbat sari jaso ditu Espainiako Plater Tiroketa Txapelketan. Gauerdian, berriz, tantaia jasoko dute gazteek. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

### Udaleku irekietarako begiraleak behar ditu GURELek

Hilaren 13an itxi zituen ateak ludotekak; izan ere, urria ezkero makinatxo bat jolas egiteko aukera izan dute herriko txikienek. Orain, berriz, Gurasoen Elkartea (GUREL) uztaileko udaleku irekiak prestatzen hasi da. Uztailaren 7tik 18ra izango dira udalekuak, eta tarte horretarako begirale bi behar ditu GURELek. Begirale lanetan eskarmentua izatea, euskaraz jakitea eta gidabaimena izatea beharrezko dira. Interesatuok deitu zenbaki hauetako batera25a baino lehen: 943 71 46 29 edo 943 71 54 25. /A.G.

## Zabalik



ELENA LAKA

### Totus tuus Real

**Indian behiak letxe, horrelakoxea da Reala Gipuzkoan, ukitu ezina. Guztiok Realarekin, denok txuri-urdinak, herri guztia zuen atzetik. Ez dago disidentziarik. Garai batean intelektual modukoen artean *fotballa*-ren kontrako pose bat bazegoen ere, gaur egun intelektualetan modernoena ere armairutik irtenda dago eta erabat barneratuta eta onartuta dauka *fotballa*-rekiko eta Realarekiko maitasuna. Zeren Realarekiko harremana ez da gustuko edo denbora pasako gauza: Reala maite egiten da eta Realarekin zaude ala ezer ez. *Reala ut nihil*. *Gipuzkoan way of life*. Fede kontua da. Eta fede arazoa, bihotz kontua denez, ezin da arrazoiez eta logikaz azaldu. Batzuentzat hamaika mutil gazte kamiseta arraiadunarekin baloi baten atzean, aukeratuentzat bihotz taupada txuri-urdinak. Horrelakoxea da fedea. Batzuentzat trapu gorri-berde-zuria, besteentzat aberria; batzuentzat bi makila gurutzatuta, beste batzuentzat Jaungoikoa. Badaukazu ala ez daukazu. Kristaua ala jentila. Eta kristaua bazara, gutarikoa, bizitzari zentzua eman diozu, guztiok olatu txuri-urdina, ez dago pitzadurarik. Eman diezaiogun laguntza, indarra, dirua, bitartekoak. Diputazioak ez du pentsatu datorren urteko errenta aitorpeneko deklarazioan koadrotxo batean ipintzea "nahi dut nire zergen %x Realari eman dakiola ala beste zerbaiterako erabil dadila", eliza katolikoarekin egiten den moduan. Akonfesionala bai, baina AReala ez, eta pozik, gainera.**

**Bazterren batean oraindik kolore txuri-urdinen fedeak zipriztindu bako sinestunik geratuko balitz, ez etsi, gogoan izan beste gipuzkoar ohoretsu bat, San Inazio, bere bizitza Iñigo-Inazio bitan banatu zuen fedeak heldua zela busti zuen. Ez itxaropena galdu, konberso berantiarrak ezagutzen ditut, fede irmo, tinko eta moldakaizdunak. Bizitzak badu zentzurik.**

**Koda: ea nola agertzen naizen orain lagunartera.**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Faxa

### Noiz hasiko dira gure senideen eskubideak errespetatzen?

Azkenaldian hainbat berri iritsi zaizkigu espetxeetako egoerari buruzkoak, eta tamalez ez dira batere onak.

Bautista Barandalla eta Jose Inazio Goikoetxea *Fiti*-k gaixotasun larri eta sendaezinak dituzte. Barandallaren kasuan, legeak dioen 92. artikulua aplikatu ordez, espetxeraturik jarraitzen du bere osasunak okerrera egin dezakeelarik, baldintza horietan ez duelako beharrezko asistentzia sanitarioa. Bautistak, ultzeradun kolitisaz gain, hezurretako gaixotasuna ere badu, eta *Fiti*-k bi tumore txar. Gaixotasun hauek gogorrak badira, imajina dezagun nolakoak izango diren espetxean egonik.

Jesus Mari Etxeberria *Goierri*-k 48 egun daramatza gose eta higiene greban Valdemoroko espetxean (gaur asteartea 10 izanik); hala ere, ezin dezakegu ahaztu lehenago zazpi egun egin zituela edari greban. Borroka gogor honen arrazoia oso sinplea da, isolamendu ziegatik atera dezatela ari da eskatzen, Juankar Balerdi presoaren senideen heriotza salatzeko, enkartelada bat burutzearren jipoi basati baten ostean funtzionarioek bertan salatu zutelako. Eta orain, bere egoera oso kritikoa da. Gogoratu beharra dago isolamendu ziegak zigorrak betetzeko baino ez direla, eta ez bertan presoak bere bizimodua egiteko. Egoera honekin elkartasunean Martutenen gose greba mugagabea hasi dute.

Algecirasko espetxean preso politikoak urtebete pasatxo daramatzate txapeoan isolamenduko ziegetatik ateratzeko eskatuz; eta Curtisen ere arrazoi beragatik ari dira borrokan.

Euskal preso politikoen kolektiboari beraien eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzeko, geratzen zaien tresna bakarra borroka da, eta batzuetan borroka hauek beraien kalterako dela ikusi daiteke, ondorio fisiko larriak izan ditzaketelako, eta kasu batzuetan *Goierri*-rena bezala, bere egoera muturrekoa izatera iritsi da.

Gure herriko presoen egoera ere aipatzekoa da, dauzkagun 13 presoetatik denak daudelako dispertsaturik; 1 Frantzian, 1 Salamancan, 1 Galizian, 2 Asturiasen, 2 Madrilen eta 6 Andaluzian. Hainbat aldiz euskal gizartearen gehiengoak dispertsioaren aurka dagoela esan arren, alderdi politiko, institutzioei ez zaie errealitate hau ardura eta nahi dutena egiten jarraitzen dute, senideek eta lagunek astero-astero bizia arriskuan jartzen dugun arren!

Arrasaten lau presok dute 3/4ak beteak, Jon Agirrek 22 urte daramatza espetxean, Jesus Mari Zabartek 19 urte, Jose Gabriel Urizarrek 18 urte eta Jose Inazio Gaztañagak 15 urte, eta guztiak Andaluzian daudela zehaztu beharrean gaude. Etxean egon beharko luketen arren, gugandik urrun mantentzen dituzte asmo bakar bateaz, sufrimendua areagotzearena.

Nahikoa da! beraiek egindako legeak aplikatzea exijitzen dugu, ez dezatela gure sufrimenduarekin gehiago jolastu!

IRATI ARANZABAL ZULOAGA
Debagoiena

### Bigarren mailako herritar

Hau da gure irabazia, / gure grazia. / Hemen erein dugun hazia, / Euskal Herriko demokrazia. / Ez dago legerik / edo erregerik, / herrien gainetik.

Horrela abesten zuen orain dela urte batzuk, Natxo de Felipek. Baina argi dago gaur egun, lege zein errege jartzen direla herrien gainetik. Lege eta errege arrotzak gainera. Aretxabaletan bertan 650 herritarren borondatearen gainetik, Espainiako legedia jarri berri du PNVk (EAk?). Zalantzan dudana zera da, jarrera hau men egite hutsa den, edo bertatik atera duen etekinak ere bere pisua izan duen erabakia hartzeko orduan.

Aretxabaletarrek eman ez dien zinegotzi bat hartu dute, baina horretaz gain mesprezurik handiena erakutsi dute herritar horiekiko. Izan ere, ohituraz, boto gehien izan duen alderdiak beste guztiei deitzen die, euren asmoak azaltzeko. Ba, maiatzaren 25etik ekainaren 14ra doazen 3 astetan, PNVk (EAk?) ez dio inongo deialdirik luzatu Aretxa plataformari. Garbi dago, beraz, euronzat (PP eta PSOErentzat bezala), ez garela existitzen.

Hona ba, bat batean, bigarren mailako herritar bihurtuta. Eta orain zer? Zer gehiago gertatuko zaigu? Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak (ura, zabor bilketa...) izateko eskubidea izango dugu? Gure seme-alabak eskolara eraman ahal izango ditugu? Diru laguntzak kenduko dizkiozue Loramendiri bertako bazkide izaten jarraitzen badugu? Berriztatuko al digu UDAk datorren denboraldirako txartela? Legez kanpo utziko dituzue Murrukixo edo Zaraia botatzen ez bagaituzte? Zergak ordaintzen jarraitu behar dugu, ala gure dirua gu bezain balio gabea da? (Ahaztu azken hau, erantzuna ezagutzen dudala uste dut-eta).

Bukatu aurretik eskaera bat egingo nieke PNVko (EAko?) hautatuei, atrebentzia larregi ez bada. Espainiar legedia hain fin betetzea erabaki baduzue, izan zaitezte kontsekuenteak, eta piper potoa jarri Udaletxeko balkoian. Horixe agintzen du eta legeak. Gainera ziur naiz zuen boto emaileei horren arrazoiak azaltzeko gai izango zaretela. Eta guregatik ez arduratu. Guk ederto ulertuko dugu, eta dena den..., gure iritziak balio gabeak dira.

ANJEL BERGARETXE
Aretxabaleta

### Aretxabaletako Herriari

Hauteskunde eguna joan zen, denok dakigun moduan Aretxa Plataformak ez zuen aukerarik izan normaltasunez eta demokratikoki aurkezteko. Espainiar faxismoaren lege eta errepresioak Aretxabale-

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



tan lehen indarra izan dena desagertu arazi nahi izan du.

Hau guztia bizkar gainean edukirik gai izan ginen herritarron laguntza eta trinkotasunez Aretxa-ren nahia eta proiektu herrikoi, ezkertiar eta euskalduna kaleratzeko. Honen lekuko maiatzaren 25ean eginiko hauteskundeetan lortutako emaitzak: 642 bozka herri mailan eta 665 Batzar Nagusietan.

Batzuentzako, ordea, PNVrentzat konkretuki, bozka hauek guztiak baliorik ez dute. Orain arte "ilegalizazio legearen" aurka eta PP-PSOEren politika kritikatzen zuten alderdi honek, ekainaren 14an udaletxeko pleno aretoan, aretxabaletarron borondatea mesprezatu eta iraindu zuen, espainiar lege faxistaz baliatuz beraien interes partidisten onerako.

Guztiok soberan dakigu, arazoaren konponbide bakarra elkarrizketa eta guztion partehartzea dela. Alderdi jeltzaleak, ordea, uko egin dio elkarrizketa zein elkarlanari; Aretxa plataformak Udaletxean zein Batzar Nagusietan lortutako eserlekuak lapurtuz. Hau al da hurrengo lau urteetan aretxabaletarroi eskaini behar dien Udaletxea? Merezi al dugu horrelakorik? Aretxabaletako udaletxean guztion ideia politikoak ez al dute lekurik?

ARETXA PLATAFORMA
Aretxabaleta

## Elgetan ere Madrilgo aginduak jarraituz

Gure nagusiek kontatzen digutenez, gerra ostean armaz inposatutako legezkotasunak, hamaika gauza legezkontrako egin zituen. Gure nagusiek esaten digutenez, irabazi zuten batzuk, baserritik baserrira ibili ziren ganaduak harrapatzen. Jakin bazekiten ganaduak ez zirela beraienak, baina armaz inposatutako legezkotasunarekin, besteen ganaduak hartu eta etxera eramaten zituzten.

Orain antzerakoa pasatzen ari da. Orain ez dituzte ganaduak harrapatzen, baina herriko batzuk beraiena ez dena hartu dute. Azken hauteskundeetan, Elgetako herriak argi eta garbi eman zuen errepresentazioa zein izan behar den: EAJ-EA 3, Aralar 3 eta Elgeta Auzolanian 1. Hau da herriak eman duen banaketa. Baina EAJ-EAk Madrildik lege faxista batek esandakoa beteaz, guri dagokiguna hartu du. EAJ-EAk zinegotzi bat harrapatzen digu.

Nahiz eta armaz inposatutako legezkotasuna beraien alde izan, ez daukate legitimitatea hori egiteko. Gerra ostean ganaduak harrapatzen zituzten eta orain kasu antzerakoan gaude.

Herriko borondatea errespetatu ezkero, EAJ-EAkook ez zenuten gehiengo absolutua izango, gehiengo absolutu hori Aznar eta Espainiako faxistek eman dizue.

EAJ-EA 271 boto (3 zinegotzi), Aralar 266 boto (3 zinegotzi), Elgeta Auzolanian 129 boto (zinegotzi bat). Argi dago.

ELGETA AUZOLANIAN
Elgeta

## ETBko langileok beste eraso bat jasan dugu

Euskal Telebista, Irratia eta EITBko Langile Batzordeek berriro aldez aurretik prestatzen hasia den beste eraso bat jasan behar izan dugula salatu, informatzeko eskubidea eta adierazpen askatasuna aldarrikatu eta erasoak jasandako lankideei elkartasuna adierazi nahi diegu.

EUSKAL TELEBISTA, IRRATIA ETA EITB-KO LANGILE BATZORDEAK
Euskal Herria

## Itoitz zutik

Astelehenean, hilak 16, goizeko 08:30ean Polizia Forala, Guardia Zibila eta Nafarroako Gobernuko kideak Itoitzeko herrian agertu ziren berau hustu eta eraisteko asmotan.

Bertan igandetik erresistentzi talde bat zegoen eta talde honen asmoa Itoitzeko etxebizitzak eraisketatik salbatzea, herria salbatzea, Itoitzeko urtegiaren obra ilegalak geldiaraztea, azken finean herri-gizarte baten duintasunaren eta eskubideen aldeko oihu gogor bat botatzea zen.

Horretarako beraien beso eta hankak etxebizitza batzuen egiturara kateatu zituzten eta hauetako batean dagoen bunker batean sartu eta bertatik etxeko egiturara ere lotu ziren.

Itoitz eta Agoitz inguruetan indar polizialen presentzia itzela egon da egun hauetan eta beraien elkartasuna adieraztera hurbildutako jendearen aurrean eman duten erantzuna neurriz kanpokoa izan da. Atxilotu ugari egon dira eta Itoitzeko egoera larria da.

Honen aurrean zera eza nahi dugu: herriak bizirik jarraitu behar dutela; Irati ibaian gora dauden herriak suntsitu eta urperatzen badituzte zazpi arrisku larrik Agoitzetik Tortosaraino dauden herriak mehatxatuko dituztela eta Irati, Aragoi eta Ebro ibaien arroak txikituta gelditiko direla; ez gara sekula urtegi honen proiektuarekin ados egon eta orain ez gaude herriak hustu eta etxeak botatzearen alde; gure Ezetza oihukatzen dugu, agian azkeneko aldiz gure lurrak agurtzen ditugun bitartean, gizakia, lurra eta bizitza ez diren beste interesei saldu direla jakinda.

Herrialde batzuen ongizatea beste batzuen gaizkizatearen menpe dagoen bitartean ez da bakerik ez justiziarik egongo. Hau ez da ez garapen ezta aberastasuna ere, hau giza desberdintasuna eta bidegabekeria da. Ezaugarri hauetan oinarritzen den gizarteak bere ordaina izango du epe luze eta ertainera. Ez badugu aldatzen, bizia ematen digun lurraren suntsiketa izango da ordaindu beharreko prezioa.

Honen adibideak ere baditugu gure bailara honetan: AHT, Urkuluko proiektua, Bedoñako urbanizazioaren proiektua... Honengatik guztiagatik, zuri, irakurle, zure burua informatzera, egiten diren ekintzetan parte hartzera animatzen zaitugu, ezin gara ikusle pasiboak izan, hori da boterean daudenak nahi dutena eta.

Informa zaitez, pertsona informatua Itoitzeko urtegiaren aurka dagoen pertsona da. Itoitz gelditu, Irati bizirik, gure amalurra defenda dezagun.

ITOITZEKIKO DEBAGOIENDAR SOLIDARIOAK
Debagoiena

## Bidea, ofizialtasuna

Pasa den egunean euskararen egoeraz solasean genbiltzala, Osakidetzan ematen diren kasu larrietako bat aipatu zidan lagun batek. "...alabak larriturik galdetzen zidan, medikuari ea nola azaldu behar zion hortzetan zuen mina. Erdaraz edo euskaraz?..."

Sendagilearenean, epaitegian, Ertzain etxean, hedabideetan, irakaskuntzan, garraio zerbitzuetan, posta zerbitzuan, lantegietan,... sarritan jasan beharra izaten ditugu honelako eta bestelako hamaika egoera. Eta beti ere euskaldunon hizkuntza eskubideen galgarri. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoatik 2002.urtean jaso dituen 1036 salaketa dira egoeraren erakusle. Horietatik, %38a, eremu pribatuan izandako hizkuntza eskubideen urraketei badagozkie, gainontzeko kexa kopurua, %62a, eremu publikoan izandakoak dira. Euskal Autonomi Erkidegoan %56,8a, Nafarroako Foru Komunitatean %31, Estatu Espainiarreko Administrazioan %11,6a eta Estatu Frantseseko Administrazioan %0,6a.

Euskaldunon hizkuntza eskubideek jasaten duten eguneroko ukazioari Estatu Espainiarrak euskararen normalkuntzaren aurka abian jarri duen estrategia politikoa gehituz gero (Zabaltzen, Ikastolak, AEK eta *Egunkaria*-ren aurkako kriminalizazioak), Euskal Herriari "panorama" kaxkar xamarra datorkiola ezin dezakegu uka. Batzuk euskararen herria jazartzen duten bitartetan beste hainbat hori elikatuz baitabiltza. Euskara, poliki- poliki, heriotza goxo bezain luzera eramanez.

Aski da. "Hor dago"a jotzeko ordua heldu zaigu. "Jokaldi" honetan euskaldunok gara "esku". Herritarron erabilpen ezaren aitzaki merkeak alboratu eta erabilpena ukatu, mugatu edo ezintzen duen egoerak irauli behar ditugu. Hori da gakoa. Euskaldunon hizkuntza eskubideak oinarri eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituen legezko egoera berria behar dugu. Hots, euskarak Euskal Herrian osoan, izaera ofiziala izan behar du. Lege horrek euskal herritar guztien eskubideak babestu eta bermatzeaz gain, gure hizkuntzari lehentasunezko estatusa aitortu diona. Honela ez bada, etsaiek markatu diguten "joko zelai" honetan galtzeko guztiak izango baititugu.

Horregatik, eta euskaldunok "esku" izanik, "bide" berria eraiki beharrean gaude. Mendi berri bat igotzeko zabaldu beharra izaten diren bide-zidorren gisa. Euskarak bide horretan aurrera egin dezan, herritar eta eragile euskaltzale ezberdinen batasuna, inplikazioa eta indarra ezinbestekoa izango da.

Irmotasunez, jarri nahi zaizkigun traben aurrean gure bideari eutsiz, eta egunerokotasunean han eta hemen zapaltzen gaituenari euskaraz egin behar dela gogorarazi behar diogu; udalean, osasun etxean, epaitegian, lan bulegoan, unibertsitatean edota autobusean.

Euskara erabili eta defendatu behar delako, euskararentzat lege bakarra orain. Ofizialtasuna

DEBAGOIENEKO EHE
Debagoiena

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *Reala, Beckham... Futbola da gaur egun herriaren opioa?*

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA** Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA** Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
**ADMINISTRAZIOA** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK** Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
**PUBLIZITATEA** Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA** Iban Arantzabal
**TESTUEN ZUZENKETA** Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA** Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA** Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA** Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Lasterkari ezagunak Oñatin

## 5.000 metro egin beharko dituzte lasterka, zapatuan, herriko kaleetan

**Oñatiko Gorpuzti jaietan izango da nobedaderik aurten. Berritasuna ez da nolanahikoa, gainera. Lehen aldiz antolatu dute krosa, eta maila handiko kirolariak izango dira herriko kaleetan zapatu arratsaldean.**

Jesus Arregi garai baten atletismoan ibilitako oñatiarrak jardun du antolakuntza lanetan, eta aurten mota eta maila horretako lasterketa egitearen zergatiaz galdetuta, zera esan digu: "Aloña Mendi taldearekin korrika jardundakoa naiz, eta oso gogoko dut atletismoa. Horregatik, eta Oñatiko jaietarako ekitaldi berriren bat ekartzeko asmoz, buru-belarri ibili naiz lasterketa antolatzen".

Arregiren ahalegina ez da alferrikakoa izan, eta atletismozale horrek Udalaren laguntzarekin egindako lanaren ondorioak zapatu arratsaldean ikusiko dira. Izan ere, maila handiko korrikalariak etorriko dira Oñatira. Besteak beste, Alejandro Gómez, Alberto Juzdado, Javier Cortés, Teodoro Cuñado eta Hicham Chatt. Atleta euskaldunik ere ez da falta izango: Ivan Sánchez, Alex Garretas, Ibon Esparzia (aurtengo Euskadiko txapeldun) eta Asier Cuevas, besteak beste. Ritxar Fernández oñatiarrak ere hartuko du parte.

Eta emakumeetan ere, izen handiko lasterkariek jardungo dute: Yesenia Centenok, Laura Pinedak, Jaqueline Martínek, Teresa Pulidok, Nieves Zarzak eta Raquel Llamasek.

Lehen urtea izanik, maila handiko korrikalariak ekarri dituzte, lasterketa ezagun egiteko eta, inguruan bada ere, izena lortzeko.




GOIENKARIA

**Ritxar Fernandez oñatiarrak hartuko du parte lasterketan.**

**IBILBIDEA**

Izenematea egunean bertan egingo denez, oraindik ez dakite ziur zenbat partaide izango diren proban. Hala ere, federatuek bakarrik izango dute parte hartzeko aukera.

Oñatiko plazan bertan irekiko da inskripzio epea, 17:00etan, eta lasterketak, berriz, 19:00etan hasiko dira. Emakumeek egingo dute korrika lehenengo eta gizonezkoek gero.

Plazan izango dute lasterkariek irteera eta helmuga. Parrokia ondotik abiatu, atzeko kaletik gora joan eta kale berritik berriz plazara bueltatu beharko dira antxintxika partaideak. Guztira 5.000 metro inguru egin arte, zortzi buelta emango dizkiote ibilbideari. Herriko kaleetan, hortaz, kirola izango da nagusi zapatu iluntzean.

Krosa 20:00ak inguruan amaituko dela iragarri digu Jesus Arregik, eta gero, irabazleek hainbat oroigarri jasoko dituzte. Diru saririk ez da egongo, ordea, korrikalari batzuek Oñatira etortzeagatik kobratu beharko dute-eta.

Hala ere, partaide bakoitzak kamisetaz, bonboiez, eta abarrez osatutako poltsa bana jasoko du.

Jesus Arregik, egindako lanaren ostean, lasterketa ikusteko gogoz dagoela esan digu: "Hartutako lana handia izan bada ere, merezi duela uste dut, eta zapatua iristeko gogoz nago; izan ere, lasterketa zelan irteten den ikusteaz gain, goi mailako atletismoaz disfrutatzeko aukera paregabea izango dut. Nik neuk ez ezik, herritarrek eta Oñatira etortzen diren zaleek ere gozatuko dutela pentsatzen dut, edo hala gura nuke, behintzat".

IRATI AGIRREAZALDEGI



## Luperini, Somarribaren aurretik Elgetan

Joane Somarribak Fabiana Luperini izan zuen aurkari Elgetan amaitu zen Emakumeen Birako erlojukontrako proban. 5,8 kilometroko igoeran marka hautsi zuen Luperinik, eta pelotoiko eskalatzaile onenetako bat dela erakutsi zuen. Zortzi segundoko aldea atera zion Sopelako txirrindulariari.

Hurrengo egunean Elgetan hasi zen Birako azken etapa, eta Melchers holandarra izan zen lehenengo, baita Birako irabazle ere.

## *Kirolabur*



### ARETXABALETA/PILOTA

Unai eta Ibon Errasti pilotari aretxabaletarrak izan dira, hirugarren aldiz, Debarroko Pilota Txapelketako irabazleak. Elgoibarko Ikastolako pilotalekuan jokatu zuten finala Zugasti eta Lazkano arrasatearren aurka, eta 22-20 amaitu zen partidua. Hasieran, Arrasateko pilotariek zazpi tantoko aldea egin zuten (0-7). Lehia handiko partidua izan zen, eta azkenean Errasti anaiak izan ziren garaile. Senior mailako bost final jokatu dituzte, eta hiru aldiz irabazi dute txapelketa.

### BERGARA/AUTO LASTERKETA

Aitor Zabaleta bergararrak herritarren aurrean bere nagusitasuna erakutsi zuen zapatuan, Gorlako Igoera lehen postuan amaituta. Lasterketako faboritoak eta Zabaletaren aurkariak ziren Vilariñok eta Egozkuek ez zuten parte hartzerik izan, eta bigarren sailkatuari hamar segundoko aldea atera zion Zabaletak, Lola BMW autoarekin. Lasterketan parte hartu zuten 53 auto gidarietatik 47 iritsi ziren helmugara. Ezustekorik ere izan zen proban; izan ere, Josu Ugarte gidaria errepidetik irten eta ikusle bat harrapatu zuen. Hanka apurtuta ospitalera eraman behar izan zuten Ugarrixa baino lehenago zegoen zalea.

### OÑATI/PILOTA

Pilotari profesionalen partiduak jokatuko dira bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian. Pilotazale oñatiarrek azkenaldian maila ona erakusten ari den Unanue eta haren bikotekide Errasti Berasaluze VIII.aren eta Peñagarikanoren aurka ikusiko dituzte jokoan. Aurrez, Arbizuk eta Pinedok Azpirozen eta Medinaren aurka jardungo dute. Orain dela lau urte berreskuratu zen Gorpuzti jaietan pilota partiduak antolatzeko ohitura. Aurten zapatu arratsaldean izango dira, 16:45ean.

### DEBAGOIENA/XAKEA

Joan den aste bukaeran hainbat xake txapelketa jokatu ziren Bergarako Ipintza Institutuan. Zapatuan Gipuzkoako Txapelketa izan zen jokoan, eta Francisco Miguel aretxabaletarra bigarren sailkatu zen. Francisco Miguelek berak lehen postua eskuratu zuen hurrengo egunean jokatutako Euskadiko Txapelketan. Gipuzkoako txapelketan, berriz, Aretxabaletako Arlutz taldea bigarren izan zen taldekako sailkapenean eta Arrasate eta Bergara hirugarren eta seigarren, hurrenez hurren.

### ARRASATE/GIMNASIA ERRITMIKOA

Euskadiko Ligako finala jokatu zuten, Donostian, Arrasate Dragoi gimnasia taldeko hainbat neskak; baita emaitza onak lortu ere. Gazteak, taldeka, bigarren izan ziren amateur mailan, eta zilarrezko domina eta trofeoa jaso zituzten. Taldea Maialen Balentziagak, Janire Bolinagak, Miren Bragadok, Maria Etxebarriak, Edurne Elkorok eta Idurre Gartziak osatu zuten. Banaka, berriz, A kategorian Idurre Gartzia hirugarren sailkatu zen eta Maialen Balentziaga, berriz, bigarren izan zen B kategorian. Eta behin txapelketa hori amaituta, gimnastek dagoeneko bukatu dituzte aurtengo denboraldiko saioak. Oso emaitza onak lortu dituzte.

**MENDIKOI ARKAUTE NEKAZARITZA ESKOLA**
01192 ARKAUTE (ARABA)
Tel.: 945.285387 Fax: 945.284955
eaarkaute@mendikoi.net

**MENDIKOI DERIO NEKAZARITZA ESKOLA**
Berreaga, 5 48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel.: 94.4541421 Fax: 94.4540162
eaderio@mendikoi.net

**MENDIKOI FRAISORO NEKAZARITZA ESKOLA**
Elbarrena auzoa, z/g 20159 ZIZURKIL (GIPUZKOA)
Tel.: 943.692162/166 Fax: 943.692 247
eafraisoro@mendikoi.net



# AURKI EZAZU LAN AUKERARIK ZABALENA NEKAZARITZA ALORREAN

**Erdi Mailako Zikloak**
- Lorazaintzako teknikaria
- Nekazaritzako ustiapen intentsiboetako teknikaria
- Nekazaritzako ustiapen estentsiboetako teknikaria
- Abeltzaintza ustiapenetako teknikaria

**Goi Mailako Zikloak**
- Baliabide natural eta paisajistikoak: kudeaketako eta antolaketako goi-mailako teknikaria
- Nekazaritza eta abeltzaintza enpresak: kudeaketako eta antolaketako goi-mailako teknikaria

**Beste Ikasketak**
- Landibe-Hastapenerako Ikastaroa (LHI)

## MENDIKOIn matrikula zaitez !

MENDIKOI
Heziketa, Sustapena, Landa Garapena
Formación, Promoción, Desarrollo Rural

www.mendikoi.net

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

IKASLAN zentru sareen partaidea

EUROPAR BATASUNA
COMUNIDAD EUROPEA
Europako Gizarte Fondoa
Fondo Social Europeo

# sukaldeko olio erabili eta hondakin arriskutsuen gaikako bilketa

**NON eta NOIZ?**

| | | | |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | Herriko plaza (frontoi ondoan) | Hileko azken ostirala (bi hilez behin, bikoitietan) | 9:00 - 13:00 |
| ARETXABALETA | Belorrieta kalea (azoka egiten den kalea) | Hileko azken astelehena | 9:00 - 13:00 |
| ARRASATE | Azoka (Mondragones kalea) | Hileko bigarren ostirala | 9:00 - 13:00 |
| | Laubide plaza (arropen merkatua) | Hileko azken ostirala | 9:00 - 13:00 |
| BERGARA | Merkatu plazaren ondoan | Hileko azken larunbata | 9:00 - 13:00 |
| ELGETA | Mendizaleen plaza (Udaletxe parean) | Hileko azken ostirala (bi hilez behin, bikoitietan) | 16:00 - 20:00 |
| ESKORIATZA | Eduardo Gorosarri Jaunaren plaza (merkatua) | Hileko bigarren ostirala | 9:00 - 13:00 |
| LEINTZ GATZAGA | Herriko plazan (megafoniaz deituko da) | Hileko azken astelehena | 13:30 - 14:30 |
| OÑATI | Merkatu plaza (Foruen Enparantzaren ondoan) | Hileko azken larunbata | 9:00 - 13:00 |

ZURE LAGUNTZARI ESKER, INGURUMENA ZAINTZEKO BESTE URRATS BAT EMANGO DUGU




DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Tel: 943 79 33 99

**ZER HONDAKIN BILTZEN DIRA?**

sukaldeko olio erabilia *
fluoreszenteak **
bateriak
toner kartutxoak
erradiografiak
pilak
telefono mugikorrak
termometroak
etxe-tresna elektriko txikiak
motore olioak ***
pinturak eta disolbatzaileak ***
garbitasun produktuak ***
(lixiba, amoniakoa, etab.)
pestizidak eta antzerakoak ***
aerosol ontzi beteak edo erdi beteak

* motore olioarekin nahastu gabe,
** bere ontzietan sartuta,
*** ontzi itxietan

Zure partehartzea eskertzeko, oparitxo bat jasoko duzu


Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA

# JAIAK

Egubakoitza / 2003ko ekainaren 20a / SAN JUANAK ARRASATEN 2003 / GOIENKARIAren gehigarri berezia



# SAN JUANAK ARRASATEN

ANDER GILLENEA



Urteko jairik ospetsuenetarikoak datoz: San Juanak. Uda hastear dago. Festaren lilura gauez eta egunez. Danborrada, dantzaldiak, ..., jo ta ke lehertu arte. San Juanetan, JMA ere jai giroan.

*Guztiekin. Betiko moduan.*

JMA
ALEJANDRO ALTUNA, S.A.

■ MUSIKA HOTSAK

# Benito Lertxundi, Señor No, Sex Museum, mariachia...

IKER BARANDIARAN

**Musika da jaietako osagarri garrantzitsuenetako bat. San Juan jaietan hainbat lekutan egongo dira kontzertuak: Monterronen, txosnen gunean, tabernetan... Musika estiloak ere denetarikoak izango dira.**

Bihar, zapatua, Monterronen egingo duten rock jaialdiarekin hasiko da San Juanetako musika eskaintza. Rock-and-roll eta punk-rock doinuak eskainiko dituzte.

**KALEAN, PARKEAN ETA TABERNETAN**

Astelehenetik aurrera, Kondekuan ere –txosnen gunean– egongo da zer entzun eta zer ikusi. Oraindik ez dute zehaztu zein taldek joko duten, baina jakin badakigu kontzertu bi egingo dituztela. Bestalde, Arrasate Musikaleko ikasleek eta irakasleek ere hainbat kontzertu egingo dituzte. Eguaztenean, berriz, herriko zortzi tabernak kontzertuak antolatu dituzte.

Horiez gain, Benito Lertxundik *Nere ekialdean* azken diskoa aurkeztuko du Monterronen eta Emperadores mariachiak ere eskainiko du kontzertua.



**PUNTA-PUNTAKO ROCK-AND-ROLL TALDEAK IZANGO DIRA MONTERRONEN**

Udalak zenbait kontzertu antolatu ditu San Juanetan. Horien artean, punta-puntako rock-and-roll taldeen jaialdi handia. Bihar, zapatua, Sex Museum-ek (argazkian), The Boogie Punkers-ek, Señor No-k eta The Jukebox-ek kontzertua eskainiko dute Monterron parkean. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta doan izango da. Madrilgo Sex Museum taldeak ibilbide luzea egin du, eta hard-rock-a, *garage*-a eta psikodelia uztartzen ditu. Bilboko The Boogie Punkers taldeak, berriz, *rockabilly*-a eta rock-and-roll-a egiten du. Donostiako Señor No taldeak punk-rocka eta rock-and-roll basatia egiten du; eta Arrasateko The Jukebox taldeak aspaldiko rock-and-roll eta punk-rock taldeen bertsioak egiten ditu. Laurak punta-puntako taldeak ditugu.

**Arrasate Musikaleko Bandak kontzertua egingo du martitzenean**

**Joseina Etxeberriaren Disko Festa, martitzenean, Herriko Plazan**

**Txosnen gunean kontzertu bi eta antzerki emanaldi bat antolatu dituzte**

**Benito Lertxundik 'Nere ekialdean' diskoa aurkeztuko du eguaztenean Monterronen**



**BENITO LERTXUNDIREN AZKEN LANA**

Ekainaren 25ean, eguaztenean, Benito Lertxundik kontzertua egingo du Monterronen. 23:00etan hasiko da eta doan izango da. Orioko musikari ezagunak *Nere ekialdean* izeneko lana aurkeztuko du Arrasaten. Gazteek zein nagusiek gustura hartuko dute Benito Lertxundiren kontzertua, eta ziur ikusleek Monterron parkea bete egingo dutela.
2002an kaleratu zuen *Nere ekialdean* izeneko diskoa, orain arte atera duen azkena. 2002ko azaroan egin zuen disko horren aurkezpena hiriburuetan. Bira horretarako bereziki diseinatutako argi eta soinu muntaia ekarriko du.



**MARIACHIA, NAGUSIEN GOZAMENERAKO**

Nagusiek oso gustuko dituzte mariachi taldeak. Mariachiek gaztaroan hain gustura entzuten zituzten Jorge Negrete, Jose Alfredo Jiménez, Agustin Lara, Javier Solís eta bestelakoen musika gogora ekartzen dizkiete. Dena dela, mariachi taldeek arrakasta handia izaten dute gure artean, eta jaietan beti etortzen da talderen bat. Iaz Mexikoko Zacatecas estatuko Los Pérez de Nochistlán taldea etorri zen. Aurten, berriz, Mexiko Hiriko Emperadores taldea izango da gure artean. Mexiko Hiriko Garibaldi plazan izen handia hartu dute, eta Hego Amerikan eta AEBetan zehar birak egin izan dituzte. Martitzenean kalejira egingo dute eta gauean kontzertua, Monterronen.



**TABERNAK ETA TXOSNEN GUNEA**

Udaleko egitarau ofizialetik kanpo, herriko beste ekimen batzuek kontzertuak eta bestelako ekitaldiak antolatu dituzte. Aurreko urteotan moduan, aurten ere herriko zortzi tabernak egitaraua antolatu dute eguaztenerako, ekainaren 25erako. Egun horretan, 18:00etan, herriko hainbat taldek kontzertuak emango dituzte: Never Surrender, Egus, El Rufián, Zona Especial Norte eta Jódete taldeek, besteak beste. punk, oi!, heavy eta flamenko doinuak izango dira nagusi. Bestalde, txosnen gunean antzerki emanaldi bat eta kontzertu bi antolatu dituzte. Edozelan ere, oraindik ez dute zehaztu zein taldek joko duten kontzertuotan.

■ ERREMENTARI DANTZA

# Hamargarrenez egingo dute Errementari Dantza

UBANE MADERA

**Hamargarren urtez, errementariak eta haien laguntzaileak dantzan irtengo dira San Juan jaietan. Nafarroa etorbidetik Herriko Plazarainoko bidea egingo dute. 200 lagun inguruk hartuko dute parte, dantzariak eta musikariak.**

Berrehun lagun inguru irtengo dira ekainaren 23an, 21:30ean, Errementari Dantza egiteko: 130-140 dantzari kalean (plazan 100 dantzari bakarrik kabitzen dira) gehi beste 40 bat musikari, Arrasate Musikalekoak.

Ohiko ibilbidea egingo dute: Zaldibartik irtengo dira eta Herriko Plazan bukatu. Bidean, Seber Altuben geratu eta polka dantzatuko dute; gero, Iturriotz kaletik gora egingo dute Rumba tabernaraino; han atsedentxoa egingo dute, eta gero, Erdiko kaletik plazaraino jaitsiko dira. Han ingurutxoa eta polka egingo dituzte.

Ikusmin handia piztu ohi duen ekitaldia da Errementari Dantza. Batetik, herriko talde ugarik hartzen dutelako parte; eta bestetik, zuzen-zuzenean Arrasateko kulturarekin lotuta dagoelako. Hamar urte atzera egin behar dira dantza berezi horren jatorriaren berri izateko.

**Ikusmin handia piztu ohi duen ekitaldia da Errementari Dantza**

#### KULTURA ELKARTEAK, BATERA

Jose Ramon Vitoria musikari arrasatearrak bultzatu zuen. Jaime Bengoa *Gomix* dantzariak honela gogoratzen du sorrera hura: "Jose Ramon Vitoria Arrasate Musikalen zegoen orduan, eta hark zeukan asmoa azaldu zuen; gero, talde guztiak harremanetan jarri zituen: txistulariak, dantza taldeak, gaitariak, txalapartariak, trikitilariak, alboka jotzaileak, Bertso Eskola eta Arrasate Musikal. Asmoa zen denon artean haren ideiarekin zerbait lortzea. Hala, Jose Ramon Vitoriak berak egindako partiturak erakutsi zizkigun eta kontatu zigun zein ideia zeukan: Arrasateko historia zela eta ez zela, errementariak herensugea akabatu zuela-eta… Ideia horrekin guk egin genuena izan zen haren musikari dantza ipini. Baina ez genuen pausorik-eta asmatu; existitzen diren dantzetatik zatitxoak aukeratu genituen: polka bat, ingurutxo bat… Eta guztia musikara egokitu genuen". *Gomix*-ek honakoa gaineratu du: "Vitoriak ideia oso-osoa eduki ohi du; musikaria da, eta, adibidez, dantzarako asmatutako musikak errementarien kolpeak sinbolizatzen ditu (makilekin ematen dituztenak). Kontu horiek guztiak haren burutik datoz".

**Dantzaren hasierako asmoa zen kultura taldeen artean zerbait egitea**

**Dantzaren musikak errementariaren kolpeak sinbolizatzen ditu**

Hortaz, hura izan zen hasiera. Handik aurrera, batu zirenen artean dragoia egin zuten, Erraldoi eta Kilikien Konpartsak eurekin batera irtetea erabaki zuen, jantziak egin zituzten… Eta hala estreinatu zuten Errementari Dantza. Sekulako arrakastarekin, gainera. Azken hamar urteotan, behintzat, Errementari Dantzari bizi-bizi eustea lortu dute!



### HERENSUGEAREN ETA ERREMENTARIAREN KONDAIRA

Antzina ba ei zegoen Murugain mendian Arrasate herria uxatzen zuen herensugea. Abere hark zerga bat ezarria zien arrasatearrei: urtero herriko neskaren bat ematea jateko. Eta urtero, Mandoin mendi magaletik neskatoaren bila jaisten zen. Oraindik ere zera esaten da: Arrasateko gurutzegunetik Olandixora eta Mandoin eta Untzillako bideak bere buztankaden bidez zabaldutakoak direla. Hortaz, arrasatearrek neska bat uzten zioten Txoxagorri aldapan. Baina urteekin, herritarrak aspertzen hasi ziren, eta erabaki bat hartu zuten. Inguruko bati bururatu zitzaion ideia azkarrena: argizarizko neska bat egitea herensugeari emateko. Esan eta egin. Herensugearen urteroko eguna heldu zenean, Txoxagorrin jarri zioten argizarizko neska. Herensugea ez zen konturatu, eta hura jaten hasi zen. Ahoa mugitzen hasi zenean, argizaria urtzen hasi eta hortzak jausten hasi zitzaizkion. Orduan, ezkutatuta zeuden zenbait herritarrek burdinoletan gori-gori jarritako burdin eztenak gorputzean sartu zizkioten. Handik gutxira hil zen herensugea, eta harrezkero pozik bizi izan ziren arrasatearrak.

# JAIETAKO E

## Egubakoitza, 20

**18:30** Txosnen IREKIERA EKITALDIA egingo dute.
**19:00** Arrasate Musikaleko BIG BAND taldeak KONTZERTUA egingo du Jose Letona plazan.
**19:30** ANTZERKI SAIOA egingo dute txosnen gunean. MacRea aktore irlandarrak umorezko antzezlana taularatuko du.

## Zapatua, 21

**11:00** Uarkape pilotalekuan koadrila arteko PILOTA TXAPELKETAREN FINALERDIAK jokatuko dira.
Egun osoan, Zaldibar pilotalekuan, Arraska taldearen PATXI MATXIN JAIA ospatuko da. *Skate* eta grafitti erakustaldiak eta musika emanaldiak egingo dituzte, besteak beste.



**16:00** Uarkape Udal Pilotalekuan San Juan PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK jokatuko dituzte.
**22:00** ROCK KONTZERTUA egongo da Monterron parkean. Musika talde hauek joko dute: Juke Box, Boogie Punkers, Señor No eta Sex Museum-ek, hain zuzen.

## Domeka, 22 Haur Dantzarien Eguna

**10:30** Nafarroa etorbidean UME DANTZARI taldeak batuko dira.

**11:45** Dantzari taldeek DANTZA KALEJIRA egingo dute herriko kaleetan.

**12:00** Zaldibar pilotalekuan ARKU TIROKETA LEHIAKETA jokatuko da.

Interesa izanez gero, arku tiroketa praktikak egiteko aukera izango dute Zaldibarrera hurreratzen direnek.

**17:00** Herriko Plazan dantza talde guztien JARDUNA ETA AGURRA egongo dira.
Herriko Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz euskal dantza taldeek antolatu dute ekitaldia. Gero, DANTZALDIA egongo da.

## Astelehena, 23 San Juan bezpera

**12:00** Herriko Plazan TXUPINAZOA botako dute, koadrilak batzeko.
**15:00** Arrasateko txistulariek DIANA joko dute.
**16:00** ETXAFUEGOAK eta BONBA JAPONIARRAK botako dituzte Herriko Plazan.
**17:00** Koadrilak Maalan elkartuko dira, eta MAKALA herriko plazaraino eroango dute.
**18:00** MAKALA jasoko dute Herriko Plazan.
Segidan, TRIKI POTEOA egongo da herriko tabernetan. Edonork har dezake parte.
**18:00** Uarkape pilotalekuan koadrila arteko PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK jokatuko dira.
**19:30** SALBE SOLEMNEA egongo da San Juan Bataiatzailearen parrokian.
**21:30** Nafarroa etorbidetik Herriko Plazaraino ERREMENTARI DANTZA egingo dute Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek.



**22:30** SAN JUAN SUA piztuko dute Herriko Plazan.
Segidan, NAGUSIEN DANBORRADA abiatuko da. Honako ibilbidea jarraituko du: Nafarroa etorbidea, Laubide plaza, Garibai etorbidea, Maala kalea, Erdiko kalea eta, bukatzeko, Herriko Plazan.
Danborrada bukatzean, DANTZALDIA girotuko du Gaubela taldeak. Herriko Plazan izango da emanaldia.
**23:00** ROCK KONTZERTUA egongo da txosnen gunean, talde ezagunen parte-hartzearekin.

## Martitzena, 24 San Juan eguna

**08:15** TXOKOLATE-JANA egongo da Herriko Plazan. Gura duten guztiek hartu ahal izango dute txokolatea.
**08:30** Herriko gaitariek DIANA joko dute.
**09:00** ENTZIERROA egongo da. Honako ibilbidea jarraituko du: Ferrerias, Erdiko kalea, Iturbide, Laubide plaza eta, bukatzeko, zezen-plaza.
Segidan, BIGANTXAK egongo dira zaleendako, zezen-plazan.
**11:00** MEZA NAGUSIA egongo da San Joan Bataiatzailearen parrokian.
**11:00** Arrasateko ERRALDOI eta KILIKIEN konpartsa irtengo da, eta herriko bazter guztiak alaituko ditu.
**12:00** Arrasate Musikaleko BANDAK kalejira egingo du.
**12:00** Herriko Plazan OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatuko dituzte herriko euskal dantza taldeek.
**12:30** Abaroan 80 urtetik gorakoei OMENALDIA egingo diete Udaleko ordezkariek.
**13:00** Monterron parkean Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAK



**NAGUSIEN DANBORRADA**
San Juan bezperako ekitaldi handienetako bat nagusien danborrada izango da. San Joan Suaren ondoren irtengo da, eta Herriko Plazan amaituko du.
**Non: Nafarroa etorbidetik plazara**
**Noiz: astelehena, 23 / 22:30**



**ERRALDOI ETA KILIKIAK**
Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak erakustaldi bi egingo ditu, biak ere goizez. Desagertzeko zorian egon ondoren, indarberrituta irtengo dira aurten erraldoi eta kilikiak.
**Noiz: martitzena, 24 eta eguena, 26 / 11:00**



**MAKALA JASOTZEA**
Arrasateko gazte koadrilek jasoko dute makala San Juan bezperan. Maalatik Herriko Plazara eramango dute lehenengo, eta han jaso egingo dute.
**Non: Herriko Plazan**
**Noiz: astelehena, 23 / 18:00**



**EGUZKI LARURI ONGIETORRIA**
Eguzki Laru, arrasatear ume eta gaztetxoen laguna, Zaldibarrera etorriko da eta harrera egingo diote. Jolasparkea inauguratuko du Eguzki Laruk.
**Non: Zaldibarren**
**Noiz: eguaztena, 25 / 12:00**

*Arduratu, ezertaz ere ez.*

MAPFRE AUTOMÓVILES

*Zure automobilean pentsatzen baduzu, pentsatu Mapfre-n.*

- *Aseguruak*
- *Finantzaketa*
- *Renting*
- *Balio erantsien lantegiak*

**Mapfre**
Errekabarren 3
943 77 11 76
**ARETXABALETA**

**Mapfre**
Garibai etorbidea 16
**ARRASATE**
943 79 89 00
Arrasate pasealekua 37
**ARRASATE**
943 79 71 31

**Mapfre**
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
**BERGARA**

**Altube zerbitzuak-Mapfre**
Portu 5
943 78 12 65
**OÑATI**

# GITARAUA

KONTZERTUA emango du.

**19:00** Arrasateko GAITARIEK kalejira egingo dute.



**19:30** BERTSO-TRIKI-POTEOA egongo da. Edonork hartu ahal izango du parte.

**20:00** MARIACHI EMPERADORES taldeak kalejira egingo du. Mexikoko doinuak izango dira nagusi Arrasateko kaleetan.

**21:00** Herriko Plazan DRAGOI JANA egongo da. Han erretako dragoia lekuan bertan dastatzeko aukera paregabea egongo da. Jaietako klasiko bihurtu den afari horretan parte hartu gura baduzue, txartelak salgai dituzue dagoeneko AED eta AEK elkarteen egoitzetan eta Monte eta Iturriotz tabernetan, 10 eurotan.

AED, AEK eta Euskal Herrian Euskaraz taldeek antolatutako afaria da.

**23:00** Monterron parkean MARIACHI EMPERADORES taldeak emanaldia egingo du. Etenaldia egingo dute gauerdian, eta 00:30ean segituko dute.

**00:00** SU ARTIFIZIAL ikusgarriak jaurtiko dituzte Santa Barbaratik, gaua alaitzeko.

**00:30** Euskadi Gazteko DISKO FESTA egongo da Herriko Plazan, Joseina Etxeberria disko-jartzaileak girotuta.

**00:30** Monterron parkean MARIACHI EMPERADORES taldearen kontzertuak segituko du.

**04:30** KULERO ETA GALTZONTZILO herri lasterketa lehiatuko dute animatzen diren herritar eta jaizale guztiek.

## Eguaztena, 25 Koadrilen eta ume eta gaztetxoen eguna

**08:15** Herriko Plazan TXOKOLATE-JANA egongo da.

**08:30** Arrasateko gaitariek DIANA joko dute.

**09:00** ENTZIERROA egongo da. Ohiko ibilbidea egingo du. Gero, BIGANTXAK egongo dira zezen-plazan.

**10:00** DIANA joko dute herriko kale eta auzoetatik.



**11:45** Ume eta gaztetxoei PONPOIAK, MARAKAK ETA BANDERINAK banatuko dizkiete Seber Altube plazan, Eguzki Laruri ongietorria egiteko.

**12:00** EGUZKI LARU Zaldibarrera iritsiko da, eta ONGIETORRIA egingo diete Txatxilipurdiko lagunek eta herriko ume guztiek.

JOLASPARKEA zabalduko dute Zaldibarren, puzgarriekin, *kart*-ekin, lantegiekin eta ondo pasatzeko beste hamaika aukerarekin.

**14:30** UMEENDAKO BAZKARIA egongo da Zaldibarren.

**14:30** KOADRILEN ARTEKO BAZKARIA egongo da.

**16:00** Eguzki Laruren JOLASPARKEA zabalduko dute berriro, 17:30ak arte.

**17:30** Alde zaharrean OLINPI-POTEOA egingo dute, txarangak alaituta.

**17:45** Zaldibarren TOP MANTA ikuskizuna egongo da, 19:15ak bitartean.

**19:15** Zaldibarren, EGUZKI LARURI AGURRA egingo diote herriko ume eta gaztetxo guztiek eta Txatxilipurdi taldeko lagunek.

**20:00** *¡Elvis, vete ya!* KALE ANTZERKI SAIOA egingo du Trapu Zaharra taldeak Seber Altube plazan.



**23:00** Ene Bada taldearekin DANTZALDIA egongo da herriko plazan.

**23:00** BENITO LERTXUNDI kantautore oriotarrak kontzertua eskainiko du Monterron parkean, abesti zahar eta berriak joaz.

## Eguena, 26

**08:30** Herriko gaitariek DIANA joko dute, jaietako azken eguna modu onean hasteko.

**09:00** ENTZIERROA egongo da, betiko ibilbidearekin, hau da, Ferrerias kaletik irten eta zezen-plazaraino.

Entzierroa bukatzerakoan BIGANTXAK egongo dira zezen-plazan bertan, zale guztien gozamenerako.

**11:00** INCANSABLES TXARANGAk kalejira egingo du.

**11:00** Arrasateko ERRALDOI eta KILIKIen konpartsa irtengo da, goiza alaitze aldera.

**18:00** Herriko Plazan UMEENDAKO ANTZERKIA egongo da: Hortzmuga taldeak *Klaketa* antzezlana eskainiko du.

**19:00** INCANSABLES TXARANGAren kalejira hasiko da.

**19:30** SOKA DANTZA egingo dute Herriko Plazan.

**19:30** ROCK KONTZERTUA egongo da txosnen gunean. Izen handiko taldeek hartuko dute parte.



### EMPERADORES MARIACHI TALDEA

Mexiko Hiritik dator Emperadores mariachi taldea. 14 musikari dira, eta AEBetan eta Hego Amerikan jo izan dute; lehen aldia dute Mondragoen.

**Non: Monterron parkean**
**Noiz: eguena, 26 / 23:00**



### BENITO LERTXUNDIREN EMANALDIA

Benito Lertxundi kantautore oriotarrak iaz kaleratu zuen orain arteko bere azken diskoa, *Nere ekialdean*, Elkarlanean argitaletxearekin. Entzun ahal izan ditugu zuzenean disko horretako doinuak Debagoienean; besteak beste, Oñatiko jaietan jo zuen, iaz, baita Eskoriatzan ere. Orain, Mondragoen eskainiko du kontzertua, eguaztenean, hilaren 25ean. *Nere ekialdean* diskoan, Lertxundiren estiloaren nortasun zeinu den moduan, letra eta doinu sentibera eta intimistak dira nagusi. Baina disko horrek baditu berezi egiten duten ezaugarriak; esate baterako, Fernando Pessoa olerkari portugaldarrak inspiratu zizkion oriotarrari hainbat letra eta musika. Horrez gainera, nostalgia eta herriari eskainitako gogoetak ere baditu berbagai diskoan.

**Non: Monterron parkean**
**Noiz: eguaztena, 25 / 23:00**



### ROCK KONTZERTUAK

Doinu kementsuak gustuko dituztenek euren aukera izango dute txosnen gunean. Monterron parkean ere lau rock taldek joko dute bihar, zapatua.

**Non: Monterronen eta txosnen gunean**
**Noiz: 21ean, 23an eta 26an / 23:00**

**ALMACENES ARRASATE**

**650 m² zure zerbitzura merkatuko marka onenekin: Fagor, Aspes, Bosch, Philips, Sony…**

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK ETA SUKALDEAK**

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

**Doan egingo dizkizugu proiektua eta aurrekontua. Konpromiso barik.**

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3 • Roneo ondoan







**Kataide poligonoa 3**
**ARRASATE**
**Tel.: 943 77 13 52**
**Ordutegia: 09:00-13:00**
**eta 15:00-20:00**
**Zapatu goizetan zabalik.**

■ ARRASATEKO ARRASKA 'SKATE' TALDEAK JAIA ANTOLATU DU SAN JUANETARAKO

# Patxi Matxin 'skate' jaia bihar, zapatua, Zaldibarren

XABIER URZELAI

**Arraska *skate* taldeak Patxi Matxin *skate* jaia antolatu du San Juan jaietarako. Jaia bihar, zapatua, egingo dute Zaldibarko pilotalekuan, baina *skate*-a baino askoz ere gauza gehiago egongo dira: grafitiak, kontzertua, musika elektronikoa, *hip hop*-a...**

Patxi Matxin *skate* jaia antolatzeko jo eta ke ibili dira lanean Mondragoeko Arraska taldeko lagunak. Otsailean Musakolako kiroldegian egin zuten lehenengo topaguneak izan zuen arrakasta ikusita, San Juanetarako zerbait berezia prestatzea erabaki zuten.

**ESAN ETA EGIN**

Arraska taldeko kideak aspaldi hasi ziren lanean. *Skate* jairako arrapala eta barandak errentan hartzea ia ezinezko da, eta berriak egin behar izan dituzte. Jaian, baina, *skate*-arekin gozatzeko aukeraz gainera, beste gauza asko ere izango dira. Hori esan digu Arraska taldeko Sergio Arroyok: "Jaia antolatzeko hainbat talde egin ditugu: batzuk arrapalak eta barandak egiteaz arduratu dira, eta beste batzuek grafitiak eta kontzertuak antolatu dituzte. Babesleak ere lortu ditugu. Jaian, *skate*-az gainera, beste gauza asko izango dira, eta dena antolatzea lan handia da. Udalak, behingoz, dirulaguntza polita eman digu, eta kirol denda batzuen babesa ere badugu". Sergiok argi dauka jaian giro ederra egongo dela: "Seguru kanpotik jende asko etorriko dela; jai arrakastatsua izango dela uste dugu. Sari batzuk emango ditugu, baina ez da lehiaketa izango".

Sergiok urte asko daramatza *skate*-aren gainean, eta ibarrean kirol hori egiteko leku aproposik ez dagoela azpimarratu du: "Urte asko daramatzagu *skate* parke bat eskatzen, baina laguntza gutxi izan dugu. Horrelako jaiak egiterakoan kirol hori bultzatu gura dugu, eta jendeak ikus dezala asko garela *skate*-a egiten dugunok, eta ez dela umeendako kirol bat bakarrik".

Hortaz, *skate*-a atsegin duzuenok edo, beste barik, hura hurragotik bizi gura duzuenok hitzordu garrantzitsua duzue bihar, zapatua, Zaldibarren. Gogoratu: *skate* ikusgarria, grafitiak, *hip hop*-a, musika elektronikoa, kontzertua, sariak...










ARRASKA TALDEA / XABIER URZELAI

**Bihar zapatua, 11:00etan hasiko da Patxi Matxin *skate* jaia. Jaiak egun osoa iraungo du, eta 18:00etan, musika elektronikoa, *hip hop*-a eta grafitiak izango dira.**

**"Jaian gauza asko egongo dira: 'skate' ikusgarria, grafitiak, kontzertuak, 'hip hop'-a..."**

**"Arrasateko Udalak, behingoz, dirulaguntza polita eman digu, eta jairako babesleak ere lortu ditugu"**

**"Urte asko daramatzagu 'skate' parke bat eskatzen, baina kasu gutxi egin digute"**

**"Kirol hori bultzatu gura dugu, jendeak ikus dezan inguru hauetan ere *skate*-ak badituela jarraitzaileak"**




# ARRASATEKO JAIAK GOIENA TELEBISTAN

## Albistegi berezia, Salbea, ‘Jaiak 2003’...

**Eguaztena 25**
20:30
‘Salbea’, San Juan Batailatzailea parrokiatik.

**Eguena 26**
14:30, 15:30, 20:00 eta 22:00
‘Berriak’ albistegi berezia, Zaldibarretik.

**Eguena 26**
20:45
San Juan jaietako ekitaldien gaineko saio berezia: ‘Jaiak 2003’.

**Eta horretaz gain**
Txatxilipurdiren ikuskizun berria, ‘Top Manta’ ikuskizuna, osorik grabatuko du Goiena Telebistak.

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*

■ **DRAGOI JANA**

# Dragoi txuletak izango dira herri afariko plater nagusi

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Dragoi txuletak izango dira San Juan gauerako AEDk –AEKren eta Euskal Herrian Euskaraz-en laguntzarekin– antolatutako herri afariko plater nagusi. Menu berezia eta postrerako hainbat ekitaldi, 21:00etan, Herriko Plazan.**



GOIENKARIA

**Txuletekin batera entsalada eta piperrak izango dituzte afaltzeko.**

Bada antzinako kondaira bat Arrasaten, esaten duena garai baten bazela Murun dragoi bat urtean behin herrira jaisten zena bertako neska ederrenaren bila. Herritarrak dragoiaren beldur ziren, baina ahalegin askoren ostean herensugea hil egin zuten, eta orduz gero lasai bizi dira arrasatearrak.

Dragoiaren kondaira, ordea, ez da ipuin hutsean geratu, eta kontu hura gogoratzeko, orain dela bospasei urte AED elkarteko gazte talde batek Dragoi Jana antolatzea erabaki zuen. Gaur egun, AEKren eta Euskal Herrian Euskaraz-en laguntza izaten dute San Juan jaietan egiten den herri afaria antolatzeko.

**DRAGOI TXULETAK**

San Juan gauean, ekainaren 24an, 21:00etan hasiko da plazan afaria. Antolatzaileek 500 afari txartel jarri dituzte salgai. Izan ere, Dragoi Jana egiten hasi zirenean, afaritarako gutxi batzuk inguratzen ziren, baina gaur egun jankide kopurua mugatu egin behar izaten dute.

Arrasateko plazara joaten direnek AEDko hainbat lagunek prestatutako dragoi txuleta bana jango dute, entsalada eta piperrez lagunduta. Postrerako gazta eta irasagarra egongo da, eta gero, kafea. Hori guztiori, hamar euroren truke. Txartelak AEDn, AEKn eta Monte eta Iturriotz tabernetan eskuratu ahal izango dira. Txartelok 24ra arte egongo dira salgai, eta egunean bertan, oraindik afaritarako lekurik egonez gero, plazan egongo dira salgai.

**BERTSOAK ETA MUSIKA**

Kafearen mingotsa gozatzeko-edo, kultura emanaldirik ez da falta izango San Juanetako afariaren bueltan. Besteak beste, afal aurretik triki-bertso-poteoan ibilitako AEDko Bertso Eskolako kideek afal inguruan ere kantatuko dute bertsorik. Bestalde, Goikobalu abesbatzako gaztetxoek ere euren abestiekin jantziko dute plaza.

San Juan bezperako suen txingarretan erretako txuletak janez eta dragoiaren kondaira gogoratuz, ziur Arrasateko neska ederrenak, dragoiaren ondorengoei ihes egiten baino gehiago, eurekin dantzan ibiliko direla afalostean.

**500 lagunendako prestatuko du afaria AEDk, eta txartelak hamar eurotan salduko dituzte**

**Afariaren aurretik eta afalostean AEDko Bertso Eskolakoek bertso kantuan jardungo dute**



# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko ekainaren 20a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 20tik 27ra


# UDAL WEBGUNEAK

**Webguneen bidez, 'udal leihatila birtuala'-ren ideia egi bihurtzen dabil. Ez da hainbeste falta, adituen esanetan, udalarekin gure harreman guztiak etxetik egin ahal izango ditugun eguna iristeko. Horren bidean daude Debagoieneko udal webguneak –Aramaio, Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Elgetaren kasuan, Goienak kudeatuta–, eta etengabe eguneratutako informazioa jaso, lan eskaintzen berri izan... eta beste hainbat aukera ematen dizkiete herritar eta kanpotarrei.**



## ARRASATE
### Webgune dinamikoa eta lotura askorekin

Goienak kudeatzen ez duen arren, itxuraz eta funtzionamenduz beste udal orrien oso antzekoa da. Ibarreko herri nagusiaren orria edukiz oso ondo dago hornitua, eta gaur eguneratzea ere azkar egiten dute.

Dinamismo handiko webgunea da, eskaera orriak, txostenak… eskuratzeko aukerarekin. Lotura interesgarriak eskaintzen ditu.

www.arrasate-mondragon.org



## BERGARA
### Edukiz ondoen hornitutako gunea

Biztanle kopuruari begira ibarreko bigarren herriari dagokion moduan, edukiz oso ondo hornitutako webgunea du dagoeneko Bergarak.

Maiatzaren 13an aurkeztu zuten webgunea, eta, denbora gutxian, aurrerapauso handiak egin ditu. Udal tramiteak horren bidez egiteko aukera txertatu nahi dute laster.

www.bergara-udala.org



## OÑATI
### Herriko patrimonioaren erakusleihoa

Oñatiko Garapen Agentziak eta Turismo Bulegoak daramate webgunearen ardura. Iaz, apirilean, sortu zuten; aurten aldaketak egin dizkiote, eta bost hizkuntzatan dago ikusteko aukera.

Bere helburua da Oñatiko arte, kultura eta historia patrimonioa ezagutzera ematea, ez hainbeste udal zerbitzuak eskaintzea.

www.oinati.org



## ARETXABALETA
### Udal Tramiteak on line egitea du helburu

LKS-k egin zuen webgunearen proiektua eta Agoranet-ek diseinua. Gaur egun, albisteen kudeaketa erdibana egiten dute Udalak eta Goienak. Bi hilabeteren buruan edukiz hornituago egongo da. Horretarako deitu dio Udalak Goienari. Helburua tramiteak etxetik bertatik egitea izango da etorkizunean .

www.aretxabaleta.com



## ESKORIATZA
### Guztietatik, albistegi dinamikoena

Otsail bukaera ezkero dago abian webgune hori. Hala ere, Debagoieneko udal guneen artean, albistegi dinamikoena du. Udal langileek eta Goienako arduradunek oso koordinazio ona lortu dute, eta udal arduradunek oso agudo ikasi dituzte berriak bizkor argitaratzeko dauden bidee zirrikituak.

www.eskoriatza.net



## ARAMAIO
### Gunea sortu, lehenengo, eta elikatzen joan, gero

Debagoieneko udal webgune berriena dugu. Udalaren apustua izan da gunea abian jartzea, lehenik eta behin, eta edukiz elikatzen joatea, hemendik aurrera.

Ibarreko udal webgune gehienak bezala, Aramaioko Udalak, Goienak eta Code & Syntax-ek kudeatzen dute.

www.aramaio.org



## ELGETA
### Debagoieneko udal webguneen aitzindaria

Ibarreko herri txikienetariko bat izan arren, udal webguneei dagokienez aitzindari izan zen, Elgetakoa izan zen-eta Debagoieneko lehenengo udal webgune pertsonalizatua. Bera baino lau aldiz handiago diren udalerrien pareko udal webgunea izatea lortu du, denborarekin eta lanarekin, Elgetak.

www.elgeta.org

GOIO ARANA

INTERNET/ DEBAGOIENEKO UDALAK, INTERNETEN

# Udal leihatila birtualaren bidean

## IBARREKO UDALEK INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GERO ETA DINAMISMO HANDIAGOA DUTEN WEBGUNEAK DITUZTE INTERNETEN

LEIRE KORTABARRIA

**Joan den hilean aurkeztu zuen Aramaioko udalak bere webgunea. Ibarreko zazpigarrena da. Iaz lehena abiarazi zenetik hona, oso denbora laburrean, ibarreko udal gehienek egin dute Interneterako jauzia. Web estatikoez haratago joanda, dinamismoaren eta zerbitzuaren aldeko apustuak dira.**

Euskal Herriko udal guztiek dute Interneten egoteko modua, Foru Aldundiak horretarako eskaintzen duen aukeraz baliatuta. Hala ere, webgune mota horren eskaintza nahiko mugatua da. Aukera horretatik harantzago joanaz, webgune ahalik eta dinamikoenak egin dituzte Debagoieneko udal gehienek. Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Elgeta, Oñati eta Aramaioren kasua dugu hori.

### GUZTIONDAKO MESEDEGARRI

Enrike Gorrotxategi Elgetako webgunearen editoreak dio: "Hiru arrazoirengatik da interesgarria udalendako webgune bat izatea: herriaren ikuspegi orokorra emateko ezagutzen ez gaituztenei; herritar eta interesatuei berri puntualak emateko; eta jendearen kontsultak eta tramiteak errazteko".

Herritarrak, bestetik, erosotasunean irabazten du; izan ere, informazio berriena modu erosoenean eskuratzeko aukera ematen dio. Esate baterako, udal lehiaketen edo deialdien baldintza orriak, eskabideak edo txostenak ordenagailura jaisteko aukera dago; udalari posta elektronikoz idazteko modua; izango diren ekitaldien berri jakitekoa... Azken egunotan, udal eraketaren gaineko albisteak beste inon baino lehenago irakurri ahal izan genituen guneotako albistegietan.

Kanpora begira, webgune horiek modu bikaina dira hiri handi ez diren beste herri guztiok, informazioaren bidez, turista edo inbertitzaileongana hurreratzeko aukera izan dezaten.


GOIO ARANA
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibako telematika lantaldeak kudeatzen ditu ibarreko udal webgune gehienak.

### HELBURUA: INTERAKTIBOTASUN OSOA

Informazioa jasotzea –gehienetan, argazki eta guzti–, ordea, ez da webguneon helburu bakarra; ezta helburu nagusia ere.

"Interaktibotasuna da azken helburua", azaltzen digu ibarreko webguneez arduratzen den Goienako langile Gontzal Landak. Eta gaineratzen du: "Oraingoz badago aukera, adibidez, eskaera orri bat ordenagailura jaitsi, etxean inprimatu, bete, eta udaletxera eramateko, baina helburua da orri hori ordenagailuan bertan bete eta, sinadura elektronikoaren bitartez, Internet bidez udalari helarazteko modua ahalbidetzea".

Sinadura elektronikoak egi bihurtuko du, azken baten, *leihatila birtuala* egiteko aspaldiko egitasmoa. Hori, ordea, etorkizuneko proiektu bat da. Oraingoz, udal webguneok eskaintzen dutena ez da gutxi.

## Udalak eta Goiena

**Euren udal webgunea egin edo kudeatzeko unean, Debagoieneko udal gehienek –Aramaiok, Bergarak, Elgetak, Eskoriatzak eta Aretxabaletak– Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Code & Syntax enpresetara jo dute. Code & Syntax-ek alderdi teknikoa jorratzen du; Goiena, berriz, erredakzioaz eta edukiak Interneten jartzeaz arduratzen da; eta Udalak darama ardura editoriala. Horrek esan nahi du Udalak erabakitzen duela zer eta zelan argitaratu. Hala ere, herriko taldeek ere badute informazioa argitaratzeko aukera: "Herriko ekitaldi guztien berri eman nahiko genuke, baita herriarendako interesgarri izan daitekeen informazioarena ere", dio ibarreko udal batek.**

**Udal webguneok bi motatako edukiak dituzte: egonkorrak –udal sailen edo osaketaren informazioa, alkatearen agurra...– eta dinamikoak: ekintzon egutegi bat eta albisteak. Horiek eguneratzeaz arduratzen dira, gehienbat, Goienako langileak: "Koordinazioa giltzarri da orriak bere helburuak bete ditzan", dio Goienako Amaia Leibarrek.**



**MUSIKA/ MUSIKAIRE EGITASMOA, LEHENGO ELORRIOKO UDA JAIALDIA, ABIAN DAGO GAURTIK AURRERA**

# Zuzeneko musika Elorrion

ELORRIOKO ERAIKIN ETA PARAJE EDERRENETAN, ASTEBURURO, ZUZENEKO EMANALDIAK EGONGO DIRA

LEIRE KORTABARRIA

**Izena berria da: Musikaire. Baina ez izana: izen horren azpian, sei urteko eskarmentuak eta arrakasta gero eta handiagoak indartuta datorren kultura ekitaldi bat dator, lehen Elorrioko Uda Jaialdia zena, hain zuzen. Esperientzia hain ona izanda, Deba ibarrera ekartzeko aukera aztertzen ari dira.**

Guztira, mundu osoko 200 artista eta, aurreikuspenen arabera, 5.000 ikus-entzule: horiek batuko dira Elorrion aurtengo Musikaire jaialdian, gaurtik bertatik hasita, egubakoitza, uztailaren 26ra arte.

Urterik urte eskaintza mardulagoa prestatzen joan dira antolatzaileak. Ahalegin horren emaitza moduan, aurten proposamen berriak egongo dira: "Aurten ere bada musika klasikoa, formatu handian eta txikian, bada musika etnikoa eta jazz tankerakoa, bada antzerkia… baina erantsi ditugu beste molde batzuk: hala nola, kantu gregorianoa, dantza eta akrobazia", dio batzorde antolatzaileak.

Hamabost ekitaldi egongo dira aurten. Talde batzuk baino ez aipatzearren, Bidinte, New Orleans Gospel Chorale, Brassas Company, Jose Luis Monton eta Tangata egongo dira; gehienak, Euskal Herrikoak.

Musika emanaldiez gainera, multimedia ikuskizunak eta antzezlanak ere egongo dira, beste urte batzuetan moduan.


ANBOTO
**Aire zabaleko emanaldiak izango dira nagusi, Tactequeté taldeak iaz plazako pilotalekuan egin zuena bezalakoa.**

**GURERA ZABALTZEKO AUKERA**

Musikaire jaialdiak Elorrioko onena batu eta munduari erakusten dio: herriko ingurune paregabeak eta kultura azpiegiturak uztartzen ditu, udako giro atseginean gozatzeko aukera emanaz. "Esperientzia indartu egin da eta gero eta arrakasta handiagoa izan du", dio Arriola elkarteak.

Eta baliteke esperientzia hori Deba inguruan gozatzeko aukera izatea laster: "Iaz, antolatzaileak konturatu ziren Elorrioko Uda Jaialdiek bazutela nortasunik Elorrioko mugaz harantzago eramateko, Durangaldera Bizkaian eta Deba ibarrera Gipuzkoan".

Oraindik ez dago asmo zehatzik horren gainean, baina urrats batzuk eman dituzte; izan ere, Musikaireko arduradunek hitzarmen bat egin dute Mondragon Unibertsitateko Marketin Sailarekin, marketin eta komunikazio plan bat egiteko: "Lan gehiena eginda dago, nahiz eta oraindik azken ondorioak ateratzea falta den", diote arduradunek.

Oraingoz Debagoienean ez, baina hemendik oso gertu dugu Musikaire jaialdian parte hartzeko aukera.

**NIRE AUKERA**




## 'ROSSETTIREN OBSESIOA'
## Ramon Saizarbitoria

**Ez zait *Rossettiren Obsesioa*-rekin Ramon Saizarbitoriaren beste liburuekin bezala gertatu: hamaika aldiz heldu beharra liburua bukatzeko. Lan hori tratatu psikoanalitikoa izan daiteke, eta Juan Mari protagonistari gertatzen zaizkionak niri eta, esango nuke, askori gertatu izan zaizkigu. Neurotiko obsesiboak ote gara? Gehien gustatu zaidana liburu horretan ironiaren erabilera da: izenak aukeratzerakoan, zenbait errealitate eraikitzerakoan, eta abar. Sasoi honetan, egunak luzeak dira, eta irakurtzeko aproposak. Ziur ondo pasako duzuela *Rossettiren Obsesioa*-rekin.** /L.K.



**Alberto Telleria**

Elgetarra da. Filologoa, eta Badihardugu elkarteko kide.

**KALERATU BERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA** / Biografia




**JOSE MARI AZKARRAGA MOZO "LURGORRI"**
**Josemari Velez de Mendizabal**
Aramaioko Udala

Errenterian jaio zen Jose Mari Azkarraga Mozo. Hala ere, haurtzaroa Bilbon egin zuen. Udak ematen zituen Aramaion 1925a ezkero, sendi osoarekin batera.

Josemari Velez de Mendizabalek *Jose Mari Azkarraga Mozo "Lurgorri": bere bizitza eta idazlanak* izeneko liburua plazaratu berri du, Aramaioko Udala argitaldari duela. Argitalpenean, Jose Mari Azkarraga *Lurgorri* kazetari eta politikariaren bizitza azaltzen da. Haren datu biografikoak eta idazlanak batzen ditu liburuak, besteak beste.

*Lurgorri*-ren idazlanen berri ere ematen da liburuan, zati aukeratu eta guzti.

**LIBURUA** / Biografia




**FOLIN MARKESA**
**Kepa Altonaga**
Elhuyar
204 orrialde

Kepa Altonaga biologo bilbotarrak idatzitakoa da *Folin Markesa* biografia-liburu hori. Altonaga, orain, EHUko irakasle da. Leopold de Folin markesa (1817-1896), berriz, idazle dibulgatzailea izan zen eta, hainbat eta hainbat artikulu zientifikoz gainera, hiruzpalau liburu ere idatzi zituen. Gaiari eta mailari dagokionez, betebetean dibulgazioaren alorrekoak dira idatziok. Euskal Herriko faunaren inguruan egin dituen ikerketak ez dira nolanahikoak; horregatik, bere bizitzan barrena egin zituen aurkikuntzak ezagutzeko gonbidapena da liburu hori.

**DISKOA** / Rocka




**SEIEHUN ETA BI**
**Zein?**
Metak
8 kantu

Ama Say ezagutzen? Eta gustuko zenituen? Bada, disko horrek ez dizu hutsik egingo. Izan ere, estiloz jende askorendako ez ei den musika horrek harrapatu egiten zaitu melodien artean. Ama Say taldearen erraustsetatik jaioa. Melodiaren bidez sentimenduak transmititze aldera, tresnak modu garden, natural eta zuzenean landu dituzte, ia efektu barik. *Garage*, pop, rock, *noise* eta blues doinuak.

Zein? Gitarra atmosferikoak zein zorrotzak, nortasunez eta sentimenduz beteriko ahots gordina, bateria eta baxu sendoak. Behar bezalako taldea.

# Ekainak 20-27

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## JAIAK

### ANTZUOLA

► **Ondarreko jaiak** ospatuko dituzte bihartik aurrera, zapatua. Bihar honako ekintzak egongo dira, 12:00etan hasita: gimkana, umeendako jolasak eta krosa, auzo afaria eta erromeria, besteak beste. Etzi, domeka, prozesioa egingo dute, 12:30ean.

► **Uzarragako jaiak** ospatuko dituzte etzi, domeka. Meza eta dantzaldia egongo dira.

► **San Juan bezperako ospakizunak** egongo dira astelehenean, hilak 23. 20:30ean, arbola jasoko dute, dantzariek emanaldia egingo dute, eta lore apainketen sari banaketa egingo dute.

► **Kalebarrengo jaiak** ospatuko dituzte datorren egubakoitzean, hilak 27. 20:00etan, etxafuegoak botako dituzte; 22:00etan, erromeria egongo da.

### ARAMAIO

► **Azkoaga auzoko jaiak** hasiko dira bihar, zapatua. Datorren eguaztenera arte (hilak 25) iraungo dute jaiek.

### BERGARA

► **Otabetako jaiak** hasiko dira bihar, zapatua, Elosun. Astelehenera arte (hilak 23) iraungo dute jaiek.

### ESKORIATZA

► **Herriko erretiratuendako jaialdia** egongo da datorren eguenean, hilak 26, euren egoitzan, 17:00etan.

### OÑATI

► **Zubillaga auzoko jaiak** hasiko dira datorren egubakoitzean, ekainaren 27an. Egun horretan, txupinazoa eta txikiteoa egingo dituzte, arratsaldean; 23:00etan, film laburren emanaldia egingo dute pilotalekuan.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Araba abesbatzak** emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, San Frantzisko elizan, 20:00etan, doan.

### BERGARA

► **Angry Samoans, Safety Pins eta Sidekick** taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Fishbone** taldearen kontzertua egongo da etzi, domeka, Jam aretoan, 20:00etan.

## DEIAK

### BERGARA

► **San Martzialgo** erromeriako mahaiak errentan hartzeko epea zabalik dago. Horretarako, jo kultura etxera, ekainaren 30era bitartean, 18:00etatik 21:00etara. 19,50 euro.

### DEBAGOIENA

► **Udal euskaltegietan** izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 26ra arte, eguena.

### ESKORIATZA

► ***Eskoriatzako udaletxeen historia*** liburua aurkeztuko dute datorren egubakoitzean, ekainak 27, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.

### GIPUZKOA

► **Gazte Oporraldiak kanpainaren**




► KONTZERTUAK

### THIN LIZZY TALDE MITIKOAK BERGARAN JOKO DU BIHAR, ZAPATUA

*Jailbreak, The boys are back in town, Cowboy song, Whiskey in the jar…* Inoiz guztiok entzun ditugun abestiak dira. Rock klasikoa, musika gogor eta melodikoa, folk ukituak, eta erromantizismoz eta malenkoniaz betetako letrak; horiek dira Thin Lizzy taldearen nortasun zeinuak. Eta horietaz guztietaz gozatzeko aukera paregabea egongo da, etzi, zapatua, Jam aretoan joko dute-eta John Sykes, Scott Gorham, Michael Lee eta Gary Liedeman-ek. Euren urrezko sasoia 70eko hamarkadan izan zuten, eta kolpe gogorra jasan zuen taldeak Phil Lynott-en heriotzarekin. Baina orain, *One night only* zuzeneko diskoaren biran dabiltza, eta abesti berriak idazten dabiltza, Thin Lizzyren magia betiko gordetzeko.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Bihar, zapatua, ekainak 21. **Ordua:** 22:00etan. **Txartelak:** 20, aurretik; 22, bertan.




Gureak bestelako bidaiak dira

Aurten ere gure bidai programa aurkezten dizuegu. Beti bezala, talde txikietan mugitzen gara eta ikusten ditugun herriak errespetatuz.

Ruta de la Seda - India Norte y Sur - Tíbet y Nepal - China - Pakistán - Ruta de Caravanas - Birmania- Laos y Camboya - Filipinas - Indonesia - Irán - Yemen - Turquía - Egipto - Libia - Argelia -Marruecos - Mauritania - Ruta del Atlántico - Senegal -Malí y burkina Faso - Níger y Benín - Camerún - Kenya y Tanzania - Namibia y Bostwana - Ruta del Nilo - Madagascar - Etiopía - Alaska - Canadá - Parques USA - Ruta Maya - Guatemala - Costa Rica - Perú - Bolivia - Brasil - Venezuela - Patagonia - Nueva Zelanda.

...Baita ere

Utzi kotxea eta segi ohinez...

Horrela deitzen diogu banoan, trekin proiektuari.

Alto Atlas marroquí - Monte Kenya y monte Elgon - Monte Meru y Kilimanjaro - Montañas del Ruwenzori - Glaciar del Baltoro, K2 - Las fuentes del Ganges - Ladakh, valle de Markha - Everest. Campo base - Vuelta a los Annapurnas - Monte Kailash - Cotopaxi y Chimborazo - Cordillera Blanca y Camino del Inca - Vuelta al Paine y Fitz Roy.

Informazioa eskatu, hemen gaituzu:

banoa 1991 Bidaiak

Ledesma, 10 bis, 2
48001 BILBO
Tfnoa: 94 424 0011
faxa: 94 423 2039
e-maila: bio@banoa.com



ARRASATE ORTOPEDIA

Maalako Errabala 8
ARRASATE
Tel.: 943 77 20 78

Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
**Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea**

**Oinaren azterketak:** tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
**Umeak:** hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.

**Materia bigunen erabilera:** oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
**CAD/CAM sistema:** Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
**Neurrira eginiko oinetakoak.**
**AEBetatik inportatua.**

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua



## GORPUZTIKO PROZESIOA, ETZI, OÑATIN

Eukaristia, San Migel eta beste hainbat irudi sakraturen prozesioa egingo dute etzi, domeka, Oñatin, 12:00etan. Gorpuztiko ospakizunetako ekitaldi nagusia izango da. Gaurtik domekara bitartean, ordea, musika, dantzaldiak, kirol txapelketak… egongo dira Oñatin.

**barruan,** 14 eta 17 urte artekoendako udalekuak daude abian, eta izena emateko azken eguna astelehena da, ekainak 23. Honako egonaldiak daude aukeran: bata, Zarautzen (frantsesa ikasi eta aisialdirako ekintzak egiteko aukerarekin) eta bestea, Zerainen (euskara ikasteko helburuarekin). Izena emateko, deitu 943 48 21 11 telefonora edo jo *www.gipuzkoa.net* webgunera.

### OÑATI

► ***Berria*** **egunkariaren finantzaketan** laguntzeko asmoz, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak akzio salmenta-mahaia zabalik izango du ekainaren 27ra arte. Kultura etxean egongo da, 19:30etik 20:30era.

► **Olerki liburua** aurkeztuko dute Elkar-Hezi ikastetxeak eta Hatsa elkarteak. Bigarren kolaborazioa dute hori. Datorren eguenean izango da, ekainak 26, Santa Ana aretoan, 19:00etan.

► **Santa Marina auzokoek** afari-merienda egingo dute ekainaren 27an, datorren egubakoitzean, Santa Marina plazan, 19:00etan.

## ANTZERKIA

### ELGETA

► **Jaiak iragartzeko kabaret saioa** egongo da gaur, egubakoitza, hilak 20, Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► ***Ondo esan beharko*** antzezlana egingo dute Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak datorren egubakoitzean, hilak 27, unibertsitatean, 22:30ean.

### OÑATI

► ***1937. Gogoaren bidezidorretatik*** antzerki eta dantza emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Santa Ana aretoan, 22:30ean.

► ***Natatxa*** umeei zuzendutako antzerki lana egongo da bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:30ean.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Bi ikastaro berri** antolatu dituzte KZGuneak eta Ibai-Arte elkarteak, eta biak merkatariei eta ostalaritza sektoreko langilei daude zuzenduta. Bata izango da arriskuko elikagaiak erabiltzeko txartela ateratzeko ikastaroa, janari denda dutenei zuzendua. Egun bateko ikastaroa izango da, uztailean, 13:30etik 16:30era. Bestea izango da arrisku handiko elikagaiak erabiltzeko txartelarena, hura ostalaritza sektorekoei zuzendua. Bi egunean izango da. Izena emateko, deitu 943 79 30 90 telefonora (Jorge edo Eider).

# Zinema

### OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

*Ejecutivo agresivo*
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30.
Domeka: 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

■ UNZAGA

*Atraco a las tres y media*
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

*Relaciones confidenciales*
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatutik eguaztenera: 19:30, 22:15.

*El libro de la selva 2*
Zapatutik eguaztenera: 17:00.

### GASTEIZ

■ GURIDI

*Matrix reloaded*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

*El monje*
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

*Soy espía*
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

*Driven*
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.

*Ejecutivo agresivo*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

*La vida de David Gale*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

*El furgón*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

*La gran película de Piglet*
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

*Superagente Cody Banks*
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

*Ken park*
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

*El compromiso*
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

*Matrix reloaded*
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

*El monje*
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

*En un lugar de África*
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

*A todo gas 2*
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

*Cómo perder a un chico en diez días*
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

*La vida de David Gale*
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

*Torremolinos 73*
Egubakoitzetik domekara: 19:45.

*Caos*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

*La cámara secreta*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.

*Invencible*
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

*Rosa la china*
Egubakoitzetik domekara: 19:45.

*En un lugar de África*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

*La herencia*
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.

*Willard*
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

*Atraco a las tres y media*
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

*Jack, Amazonaseko erregea*
Zapatua eta domeka: 12:30.

■ STER ZINEMAK

*A todo gas 2*
Egubakoitza: 18:40, 20:50, 23:00, 01:05.
Zapatua: 16:35, 18:40, 20:50, 23:00, 01:05.
Domeka: 16:35, 18:40, 20:50, 23:00.

*Soy espía*
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:15, 00:25.
Domeka: 20:10, 22:15.

*El monje*
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

*Matrix reloaded*
Egubakoitza: 18:45, 21:30, 00:15.
Zapatua: 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.
Domeka: 16:00, 18:45, 21:30.

*Willard*
Egubakoitza: 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.
Domeka: 16:00, 18:10, 20:25, 22:40.

*Atraco a las tres y media*
Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:35, 00:40.
Zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35, 00:40.
Domeka: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35.

*El libro de la selva 2*
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:05, 18:00.

*Superagente Cody Banks*
Egubakoitza: 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Zapatua: 16:20, 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Domeka: 16:20, 18:30, 20:40, 22:50.

*Cómo perder a un chico en diez días*
Egubakoitza: 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Zapatua: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Domeka: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55.

*Ejecutivo agresivo*
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:10, 00:20.
Domeka: 20:00, 22:10.

*El planeta del tesoro*
Egubakoitza: 17:55.
Zapatua eta domeka: 15:55, 17:55.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

*Matrix reloaded*
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

*Relaciones confidenciales*
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

*A todo gas 2*
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

*El monje*
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

*Taxi 3*
Egubakoitza eta zapatua: 22:05, 00:05.
Domeka: 22:05.

*Condenado*
Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:25, 00:25.
Domeka: 20:20, 22:25.

*Willard*
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

*En el filo de las olas*
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 17:50, 19:50, 21:50, 23:50.
Domeka: 12:15, 15:50, 17:50, 19:50, 21:50.

*Ejecutivo agresivo*
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:55, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 17:55, 20:15, 22:30.

*La gran película de Piglet*
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05.

*Soy espía*
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

*Driven*
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:30.

*El libro de la selva 2*
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:40.
Domeka: 12:15, 16:40, 18:40.

*La cámara secreta*
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

*Superagente Cody Banks*
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

*Atraco a las tres y media*
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:40.

Astelehena, ikuslearen eguna.

*En un lugar de África:* ●●● | *Te quiero para siempre:* ●●● |

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### EL COMPROMISO

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Brad Silberling.
**AKTOREAK:** Jake Gyllenhall, Dustin Hoffman, Susan Sarandon.

Duela hamalau urte, Brad Silberlingen emaztegaia, Rebcca Shaeffer, hil egin zuten. Urte askoan Silberlingek zinemara eraman nahi izan du gertakizun harekin zerikusi handia duen istorioa, eta azkenean, asko kostata izan bada ere, lortu du bere helburua. Horren emaitza *El compromiso* lan estimagarria izan da.

Filma 70eko hamarkadako Ameriketako Estatu Batuetako hiri txiki baten girotua dago. Ezkontzekoa zen neska bat kafetegian tiroz hilik agertuko da. Horren ondorioz, haren gurasoen eta senargaiaren arteko harremana ikusteko aukera izango dugu. Maitasuna eta norberaren buruan sortutako erantzukizunak, hain zuzen ere. Argumentuaren arabera, filma negar egiteko drama handi bat izan zitekeen, baina zuzendariak komedia dramatiko bihurtu du. Istorio horretan, derrigorrez momentu dramatikoak egon behar duten arren, komediako eszena ugari ere badira. Pertsonaiak nahiko bitxiak dira, eta filmari tonu xelebrea ematen diote. Horrela, bihotza ukitzen duen dramarekin batera, tonu errealista apurtzen duen ateraldiak gertatzen dira. Adibidez, mutil gaztearen eta postetxeko neskaren artean sortzen den amodio istorioa nahiko berezia da.



Kritiko batzuek *El compromiso* beste film batzuekin konparatu edo lotu dute: *En la habitación* eta *La habitación del hijo*-rekin. Nik, ordea, Lawrence Kasdam-en *El turista accidental* filmarekin antz handiagoa hartzen diot. Biek drama, komedia erromantikoa eta pertsonaia xelebreak erabiltzen dituzte (gainera, biek oso berezia den txakur bat dute). Eta musikaren erabileragatik, filmaren tonuak Edward Burns-en filmak ere gogora ekartzen ditu.

*El compromiso*-k nahiko ondo islatzen du gizakiok dugun alde konplikatua eta zein zaila den bizitzako momentu latzenei aurre egitea. Askotan kulpa sentimenduak burura etortzen dira, noraeza eta zer egin ez jakina. Eta, horren ondorioz, naturalak ez diren harreman behartuak gertatzen dira.

Zuzendaria ondo mugitzen da gazigozoa den istorio horretan, eta abileziaz erabiltzen ditu tonu dramatiko desberdinak.

ANTONIO ZABALA

SARE INMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela. Oso eguzkitsua. 150.253,03 euro / 25.000.000 pta.
- 65 m². Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea. Berrituta. Sotoa dauka.

**BERGARA**
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
- 75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.

**ERRENTAN**

**OÑATI**
- Hiru logela, egongela, sukaldea (hornituta) eta bainugela.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Osintxun. 99 m². Ganbara, 24 m². Berrizteko.
- Osintxun. 90 m². Eguzkitsua.
- Osintxun. Behea. 45 m². Berrizteko.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**
**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**
**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegin, Osintxun bi baserri, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloan, Elosun, Zegaman, Asteasun, Bedoñan.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

ARETXABALETA
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.
943 77 03 08

BERGARA
ONDO KOKATUTA ETA JARDUNEAN DAGOEN ARRAINDEGIA EMATEN DA ERRENTAN.
943 76 17 66
943 86 10 95

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Andra Mari auzoan. 73m². Berrituta. Gas berogailua du eta oso eguzkitsua da. 10m²-ko trastelekua du. 207.000 euro. Ikusi gura duenak dei dezala. 646 35 80 57.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai. 96 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela bi. Ganbara du. 607 49 83 50.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguin auzoan. 90 m². 637 86 88 79.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Maria Jesus. 943 76 71 12.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria.** Etxebizitza ematen dut errentan erdialdean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

**Almeria.** Etxebizitza ematen dut errentan, hondartza aurrean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

**Arrasate.** Atiko berria emango nieke errentan bi ikasleri. Deitu 22:00etatik aurrera. 659 72 35 87.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Musakola auzoan. Hiru logela. Guztiz hornituta. 635 70 04 88.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. 943 53 25 74.

**Arrasate.** Pisua emango nuke errentan. Hiru logela ditu. Herriko erdigunean dago. 605 43 29 31.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan Levanteko hondartzan, uztailaren 15etik 31ra. 943 74 20 31 edo 943 74 38 27.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan Levanteko hondartzan. Igerilekua eta aparkalekua. 625 70 20 55.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan, irailean, Levanteko hondartzan. Lehenengo hamabostaldia: 420 euro; bigarrena: 360 euro. 945 21 34 70.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan, abuztuan. Hondartzatik gertu dago eta parkinga eta igerilekua dauzka. 666 67 06 94.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Matxiategin. 943 76 37 97.

**Cambrils.** Etxebizitza berria ematen da errentan. Leku ezin hobean. 943 79 63 49 edo 619 37 51 18.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan abuztuko bigarren hamabostaldirako. Zurriolatik oso-oso gertu. 943 77 21 28.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan Antigua auzoan, udan. 656 71 06 09.

**Hendaia.** Apartamentua ematen da errentan, hondartzatik gertu, prezio onean. Uztailetik urrira bitartean. 00 33 559 481 515 edo 943 64 14 50.

**Laredo.** Etxebizitza ematen da errentan, abuztuan. 617 78 85 38.

**Peñiscola (Castello).** Apartamentua ematen da errentan, uztailean. Hondartzatik gertu. Aparkalekua eta igerilekua ditu. 943 79 48 82.

**Santa Pola (Alacant).** Bungalowa ematen da errentan, abuztuan. 636 12 57 00.

**Torrevieja (Alacant).** Itsasoaren pare-parean dagoen hiru gelako bungalowa ematen da errentan, uztailean eta abuztuan. 943 79 52 94.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Lau ikaslerendako etxebizitza hartuko nuke errentan Unibertsitate inguruan. Gauez deitu. 943 67 21 05.

**Oñati.** Etxebizitza hartuko genuke errentan. Lau ikasle gara. 605 72 34 30 edo 699 81 86 24.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

**Arrasate.** Erdialdean neska edo mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Abendura arte. 659 01 05 84.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 651 70 01 55.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garajea salgai Errekabarren kalean. Auto birendako lekua. 606 83 95 32.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Kontzezinon. Josefina. 943 79 55 20.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Ibargarai hiribidean. 18 m2. 943 76 37 09.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Zurraderon, lehen solairuan. 607 46 83 37.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaletan.** Garajea hartuko nuke errentan. 943 71 20 57.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 679 45 03 56.

**Bergara.** Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. 627 53 78 61.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 20 urteko neska gertu uztailean lan egiteko. 943 79 03 12.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka garbiketa lanak egiteko goizez zein arratsaldez. 649 55 64 85.

**Arrasate.** Neska gertu aste barruan umeak zaintzeko. 943 79 19 88 edo 678 22 55 42.

**Bergara.** Emakumea gertu gauetan pertsona bat zaintzeko. 646 59 56 56.

**Bergara.** Esperientziadun neska euskaldun batek pertsona nagusiak edo gaixoak zainduko lituzke, etxean edo ospitalean, gauez edo egunez. 616 53 37 96.

**Bergara.** Etxeko lanak egiten eta umeak zaintzen lan egingo nuke. 600 71 43 07.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta plantxatzeko. 943 76 29 52.

**Debagoiena.** Arratsaldeetan lan egiteko gertu nago. Arratsaldez edo gauez deitu. 679 50 01 33.

**Debagoiena.** Astean hiru egunean etxeko lanak egiteko eta gaixoak zaintzeko gertu. 607 41 31 62.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. Hainbat lanetan esperientziaduna. 676 07 68 25 edo 943 77 30 86.

**Debagoiena.** Neska gertu arratsaldez edo orduka umeak zaintzeko. 943 71 53 74.

**Debagoiena.** Neska gertu taberna batean garbiketa lanak egiteko. Maite. 615 75 30 53.

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

OÑATI
PERTSONA BAT BEHAR DA KAFETEGI BATEN LUZAROAN LAN EGITEKO.
943 78 30 59.

BERGARA
KONDE PANADEROKUAN DOMEKA ETA JAIEGUN GOIZETAN LAN EGITEKO PERTSONA BEHAR DA.
943 76 02 57

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO.
943 76 59 19

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNA BATEN LAN EGITEKO.
943 76 50 99

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO.
652 70 82 46

BERGARA
PERTSONA BAT BEHAR DA OGIA ETA MASA IZOZTUAK BANATU ETA MERKATARI LANAK EGITEKO.
943 76 13 77

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako industria ingeniaria gertu eskola partikularrak emateko. Esperientzia handia. Arreta pertsonalizatua eta maila guztiak. Matematika, fisika, kimika, marrazketa, teknologia, elektrizitatea eta ingelesa. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Heziketa Berezian espezializatutako psikologoak laguntza eskolak emango lituzke, uztailean. 635 70 88 88.

**Bergara.** Ingeleseko eskolak emango nizkie, uztailean, DBHko eta LOGSEko ikasleei. Ana. 659 33 17 41.

**Bergara.** LH-1eko eskola partikularrak emango nituzke. 605 74 30 83.

**Bergara.** LOGSE mailara arteko eskolak emateko gertu, uztailean, goizetan. Irene. 943 76 54 12.

**Oñati.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. 616 45 23 99.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Aprilia** SR 50 motoa salgai. 360 euro. Ondo dago. 619 28 63 36.

**BMW** Trail FS-650 motoa salgai. Ondo dago. 20:00etatik aurrera deitu. 605 76 71 70.

**Citroën** ZX Avantage 1.6 i autoa salgai. Gasolinazkoa. 1992koa. Ondo dago. 943 76 50 51.

**KTM** 200 EXC motoa salgai. 2001ean erosia. 660 69 85 15.

**Opel** Kadett autoa salgai. Matrikula: SS-AF. 84.000 Km. Gehigarriak ditu. 1.300 euro. 943 76 63 02.

**Opel** Vectra 2.000 Injection salgai. Gasolinazkoa. Matrikula: VI-N. Itxitura zentralizatua. 1.000 euro. Goizez edo gauez deitu. 943 79 25 10.

**Peugeot** 205 1.8 Diesel autoa salgai. Itxitura zentralizatua eta direkzio lagundua. Gutxi kontsumitzen du. 1997koa. 4.000 euro. 655 74 80 07.

**Renault** 19 GTS autoa salgai. Bost ate. Ibilgailuen Azterketa Teknikoa apirilean pasatu zuen. Ondo dago. Prezio onean. 676 57 63 28.

**Rover** 820 SI autoa salgai. ABS, aire-girogailua, alarma eta eguzki-sabaia. 2.000 euro. 635 73 54 37.

**Seat** Ibiza TDI autoa salgai. 90 ZP. 696 38 37 68 edo 676 07 68 25.

**Suzuki** Adress R motoa salgai. 696 38 37 68 edo 676 07 68 25.

**Volkswagen** Golf GTD (bigarren saila) autoa salgai. Bost ate eta eguzki-sabaia. Gris iluna. 1.500 euro. 669 08 42 35.

**Volkswagen** California 2.4D autoa salgai. 626 19 30 28.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurrak.** Fox Terrier arrazako hiru txakur salgai: bost hilabeteko txakurkume bi eta nagusi bat. 615 79 64 15.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak** salgai: arroparako armairu bi (bata haritz egurrezkoa) eta Combi markako hozkailu bat. Denak oso ondo daude. Deitu 20:00etatik aurrera. 630 13 08 92.

**Habia-ohea** (ohe bi) salgai. 943 76 15 76.

**Piragua** salgai. Surfa egiteko eta errekan ibiltzeko egokia. Gehigarri guztiak ditu. Josu. 945 44 54 11.

### 806. GALDU

**Bergara.** Hilaren 6an, egubakoitzean, urrezko katea eta medaila galdu nituen erdialdean. Eskertuko da. Nerea. 946 58 24 70.

**Bergara.** Urrezko eraztun bat galdu nuen Irala kalean edo inguruan. Inizialak dauzka grabatuta: G.L. 943 76 06 93 edo 943 03 87 43.

### 808. BESTELAKOAK

**Antzuolara** lanera joateko autoa duen norbait behar dut. 06:00etan sartzen naiz. Udarako bakarrik. 943 76 26 63.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Bergara.** Gazte talde batek antzerki irakaslea behar du. Maika. 677 00 47 22.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**PUBLIZITATE KUDEATZAILEA**

**behar du aldi baterako lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz ondo jakitea.
- Gidabaimena edukitzea.
- Debagoiena ezagutzea.

- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2003ko ekainaren 20a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**MAKETATZAILEA**

**behar du aldi baterako lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea.
- QuarkXPress, Photoshop eta FreeHand programak ondo ezagutzea.

- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2003ko ekainaren 20a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**Aizu, adi!**

Egubakoitz arratsaldez libre bazaude eta **GOIENKARIA banatzeko prest,** deitu:
Tel: 943 71 23 91

Banaketa lanagatik ordainduko zaizu.

## AIPAGARRI

### Juanjo Arrieta

BERGARA



Eibar futbol taldeko kontseilaria da Juanjo Arrieta, eta hemendik aurrera, baita talde nagusiko entrenatzailea ere. Izan ere, Blas Ziarreta kargutik kendu egin dute, eta Juanjok eta Jabi Pérez taldeko idazkari teknikoak hartu dute kargu hori. Lehen ere taldeko entrenatzailea izandakoa da Juanjo.

### Asier Altuna

BERGARA



Huescako Zinema Jaialdiko sari nagusia irabazi du Asier Altunak 'Topeka' laburmetraiarekin. Ahobatez hartu zuen erabakia epaimahaiak. Altunaren esanetan, asteburu baten errodatu zuten film hori, Joseba Sarrionandia idazlearen kontakizun baten oinarritutakoa.

### Xabi Pascual

OÑATI




Eusko Jaurlaritzak antolatutako Giza Eskubideen gaineko sariketa irabazi du Xabik, *Relatos Marcianos* izeneko lanarekin; New Yorkerako bidaia da saria. Baina, Xabik erabaki du bidaia hori ez egitea, eta diru hori La Habanako auzo batera bidaltzea, hantxe hainbat lan egiteko.

## HILDAKOAK

**Marcelo Basauri Basauri.** Elgetan, ekainaren 12an. 85 urte.
**Luis Maria Mallea Belaustegi.** Oñatin, ekainaren 13an. 96 urte.
**Alejandro Zubia Zumelaga.** Arrasaten, ekainaren 14an. 85 urte.
**Manuela Iribar Ulazia.** Arrasaten, ekainaren 15ean. 94 urte.
**Filomena Askasibar Guridi.** Bergaran, ekainaren 15ean. 87 urte.
**Agustin Uribeetxebarria Okina.** Aretxabaletan, 16an. 82 urte.
**Julian Gantxegi Belategi.** Bergaran. 52 urte.
**M. Luisa Errasti Etxeberria.** Bergaran, ekainaren 17an. 73 urte.
**Ana Galdos Arana.** Aretxabaletan, ekainaren 17an. 93 urte.
**Pablo Oñate Pérez.** Eskoriatzan, ekainaren 17an. 73 urte.
**Manuel Alonso Sánchez.** Arrasaten, ekainaren 18an. 81 urte.



**Leire Arrizabalaga Zubia**
Aramaio • Ekainaren 6a • 3,880 Kg. Gurasoak: **Oskar Arrizabalaga** (Aramaio) eta **Laurane Zubia** (Arrasate). Argazkian,umea Ane ahizparekin.



**Ibai Zafra Pinillos**
Arrasate • Ekainaren 16a • 2,650 Kg. Gurasoak: **Ricardo Zafra** (Eibar) eta **Laura Pinillos** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



**Shzaib Chohan Mhar**
Oñati • Ekainaren 15a • 3,400 Kg. Gurasoak: **Zubir Chohan** (Pakistan) eta **Tabsan Mhar** (Pakistan).Argazkian, umea aitarekin eta Yasmin-ekin.



**Nerea Kabua Ruiz de Azua**
Arrasate • Ekainaren 15a • 3,800 Kg. Gurasoak: **Xabier** (Azpeitia) eta **Edurne** (Arrasate).Argazkian, umea aitita Albertorekin eta amama Edurnerekin.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.



Eskelen prezioa: 75 €.



**Ander Elices Mateos**
Arrasate • Ekainaren 13a • 4,160 Kg. Gurasoak: **Fran Elices** (Arrasate) eta **Rosa Mateos** (Arrasate).Argazkian, umea amarekin eta amama Sofiarekin.



**Peru Galdos Astigarraga**
Oñati • Ekainaren 16a • 3,440 Kg. Gurasoak: **Eli Astigarraga** (Oñati) eta **Iñaki Galdos** (Oñati).Argazkian, umea amaren besoetan.



**Edu Estévez** arrasatearra eta **Marijo Rodríguez** bergararra bihar, ekainak 21, ezkonduko dira Apotzagan, Eskoriatzan. Gero, bazkaria egingo dute familiakoekin eta lagunekin. Ezkonbidaian, berriz, Mexikora joango dira. Zorionak, bikote, familiaren partetik!

### ESKER ONA

Agustin
Uribetxebarria Okina



**Aretxabale**tan hil zen
2003eko ekainaren 16an,
82 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Maria Arana** eta **Roman Igarza** bergararrek 60 urte beteko dituzte ezkonduta. 1943ko ekainaren 23an, hain zuzen ere, ezkondu ziren, Bergarako Santa Marinan. Datorren asteko zapatuan ospatuko dute urteurrena familiakoekin batera. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!



**Paqui Cuñat** valentziarra eta **Gotzon Alzelai** bergararra joan zen ekainaren 7an ezkondu ziren Balentzian. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familiaren eta lagunen partetik!

### ESKER ONA

Maxima
Aldai Otadui



**Bergara**n hil zen
2003ko ekainaren 4an,
87 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Iban García** eta **Maite Morón** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira, Arrasateko San Joan Bataiatzailearen elizan. Eztai bidaian, berriz, Ameriketako Estatu Batuetara joango dira. Ondo pasa ezazuela, bada, eta zorionak, familiaren eta lagunen partetik!



**Bittori Carrillo** eskoriatzarrak eta **Juanjo Arribas** aretxabaletarrak 25 urte bete zituzten ezkonduta joan zen martitzenean. 1978ko ekainaren 17an, hain justu, ezkondu ziren. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!

**ILUSIO** *Kreditua*

**EUSKADIKO KUTXA**



Beteko ahal dituzu zure desioak makilatxo magiko honekin...
... ez baldin badabil, eska iezaguzu nahi duzuna. Euskadiko Kutxan %5 baino txikiagoa den kontsumo-kreditua duzu.

ILUSIO KREDITUAREN ESKAINTZA

| | | |
|---|---|---|
| UTBren adibidea:<br>**%4,96**<br>10.000 €-ko kopuru baterako kalkulatua, 7 urtera. | Interes nominala: %4,55<br>Irekiera komisioa: %1 (gutxienez 100 €)<br>Amortizazioa aurreratuko komisioa: %0<br>Kitapen aurreratuko komisioa: %0<br>Epea: 7 urte arte | Eskaintza hau lortzeko, beharrezkoa da Nomina helbideratzea eta Kreditu Txartela eta beste bi produktu kontratatzea, honako hauen artetik: Bizi Asegurua, Etxe Asegurua, Aurreikuspen Plana eta Etxebizitza Kontua: EAEko sukurtsaletan 03-05-15etik aurrera egindako eragiketarako balio du eskaintza honek, 20 milioi euro osatu arte. Berfinantzaketak salbuetsita daude. |

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

## HITZGEZIDUNAK

**Luma**



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [photo] | [photo] | [photo] | Narrasti mota / * Izena | | Gipuzkoako herria / Sobera | | Hitlerren jarraitzaile-ak |
| [photo] | [photo] | [photo] | | | | | |
| [photo] | [photo] | [photo] | Gaude / Errep., Txileko ibaia | | | | |
| Halere / Atsegina | | Hortaz / * Deitura | | | | | |
| | | | | | 2 / Hosto | | |
| Garai / Emakume izena | | | | Zintzoa / Infusio mota | | | |
| | | | Turkia / Ezagutzen duzu | | | Potasioa / Osatua | |
| Andereño / Baztango herria | | | | | | | Ehun mota |
| | | | | Gizon izena / Alderdi karlista | | | |
| Neukake / Sari banaketa | | | | | Aluminioa / Nafarroako ibaia | | |
| | | | | | | | |
| Zuhaitz mota | Jakina / 1 | | | | | | |
| | | | | Talde parafaxista | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**KINTZENA KONTUAK**

Bazan gizon bat biarrerako zaletasun larregirik ez zeukana. Arek esaten zeban:

- Erretirua 40 urtekin artu biarko litzakek. Eta 65 urtekin barriz biarrian asi.

Kintzeniari buruz be bazeukan bere teorixia:

- Kintzenia egunero kobrau biarko litzakek. Egunero eta goizetik.

Eztakigu au berau izan zan edo beste bat. Itxura danez, kintzenari zati aundi bat kentzen zetsan bere gastuentzat. Etxeko premiñak aundixak izanik, beiñ batian bere andria juan zan fabrikara eta, gizonen ordez, –eztakigu zer aitzakikin– kobrau zeban kintzenia. Gizona kobratzera juan zanian dinotse:

- Ire kintzenia andriak kobrau jok.

- Ah, ondo daok.

Urrengo goizean, jo dau fabrikako "sireniak". Gure gizona, baiña, geldi oian.

Juan jako andria:

- Gizon, ez zoiaz biarrera ala?

Eta arek erantzun:

- Kintzemia kobrau dabena juan deilla!

## EZETZASMATU!

**Estepan Plazaola**




### Zer izen dauka oraingo astean Debagoienean itxi duten zinema aretoak?

Oraingo astean itxi dute, Debagoieneko herri baten, zinema areto bat. Horrenbestez, zinema areto komertzial bakarrak segituko du zabalik gure ibarrean: Bergarako Novedades, hain justu ere. Baina berau urte amaieran itxiko dute. Gurea eta Amaia, Arrasaten; Irala eta Zinema, Bergaran; Aloña eta Garoa, Oñatin… sasoi bateko zinema aretoen izenak dira. Ia guztiak itxita daude gaur egun. Baina eutsi diezaiogun oraingo asteko galderari: zein zinema areto itxi dute oraingo astean Debagoienean?

- Arrasateko Alai.
- Bergarako Novedades.
- Oñatiko Santa Ana.

**Erantzun zuzena:** Arrasateko Alai.

## SOLUZIOAK



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [photo] | [photo] | [photo] | ● | S | ● | Z | ● |
| [photo] | [photo] | [photo] | J | U | L | E | N |
| [photo] | [photo] | [photo] | ● | G | A | R | A |
| ● | A | ● | B | E | R | A | Z |
| A | L | A | I | A | ● | I | I |
| ● | A | R | O | ● | O | N | A |
| E | B | A | ● | T | R | ● | K |
| ● | A | N | D | E | R | E | ● |
| Z | I | G | A | ● | I | R | O |
| ● | N | U | K | E | ● | A | L |
| S | A | R | I | K | E | T | A |
| ● | ● | E | Z | A | G | U | N |
| P | I | N | U | ● | A | A | A |



## ASTEKOHOROSKOPOA

**Gipuzkoako Astrologi Elkartea**

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*
Orain zabiltzan lanean goia jo duzula-eta, beste lanen bat topatu beharko duzu. Horretarako, hausnartzeko astia hartu beharko duzu, zer egin gura duzun zehazte aldera.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*
Egiten duzun guztiarekin identifikatzen zara, eta kosta ahala kosta zure iritziak defendatzen dituzu. Bada, horrek arazo bat baino gehiago ekarriko dizkizu jendearekiko hartu-emanetan. Bestalde, pasioa bilatuko duzu bikotekidea ez den beste edozeinekin.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*
Jendeak ez du kontuan hartzen esaten duzuna, eta konfiantza osoko lagun batekin bakarrik izango duzu harremana. Gainerakoengandik ihes egingo duzu. Bestalde, atzerrian dituzun proiektuak geldi daude.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*
Eztabaidak izango dituzu lanean, oraingo egoerarekin ez zaude-eta konforme. Hortaz, aztertu egoera objektibotasunarekin eta ezer esan aurretik ondo pentsatu; bestela, hanka sar zenezake-eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*
Lagunen batekin eztabaida handiak izango dituzu; izan ere, zuk asko ligatzen duzu eta hark oso gutxi. Hori dela eta, zutaz gaizki esaka jardungo du. Bestalde, atzerritik berri onak jasoko dituzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*
Besteren akatsak kritikatu baino lehenago, zuk zeuk ere badituzula pentsa ezazu. Bestalde, etsituta egongo zara, inbertsio batzuek ez dute-eta esperotako fruiturik eman. Azkenik, lasaitasuna eta poztasuna ekarriko dizkizuten familia harremanak.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*
Lanean ardura asko izango dituzula-eta, ezin izango duzu gura beste denbora egon familiakoekin, eta horrek etsipena eragingo dizu. Bestalde, gaizkiulertuak sortuko dituzten komunikazio arazoak.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*
Daramazun bizimoduan kaosa eta desordena da nagusi; bada, garaia da hori guztiori atzean uzteko eta bizimodua berregituratzeko. Eta lanean hasi beharko zenuke berregituratze hori, diru aldetik eskas antzean zabiltza-eta.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*
Diru estra bat jasoko duzu, eta horrek asko lagunduko dizu azkenaldian egin dituzun gastuei aurre egiteko. Bestalde, lanean ardura gutxiago izango dituzula-eta, familiakoekin eta lagunekin egoteko denbora luzeagoa izango duzu. Azkenik, zaindu dieta.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*
Lagunak erabiltzen dituzu zure kexak eta desadostasunak agerrarazteko, eta hori ez da egokia. Horiek agerraraztea zeuri dagokizu, eta ikusiko duzu emaitza hobeak lortuko dituzula. Bestalde, aspertu egingo zara bikotekidearekin.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*
Seme-alabekin hartu-eman ona izango duzu; haiek euren arazoak kontatuko dizkizute, eta zuk lagundu egingo diezu. Bestalde, sariren bat irabaz zenezake zorizko jokoren baten.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*
Hainbat lan proposamen egingo dizkizute. Bestalde, hainbat proiektu aurrera eramango dituzu, eta emaitza politak lortu. Azkenik, jende berria ezagutuko duzu, eta neskaren/mutilen batekin amodio harremana has zenezake.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA



## San Juanak 'Berriak' saioan

EGUENA / **20:00**

### Arrasateko San Juan jaiak GOITBn ikusteko aukera

San Juanen gaineko saio bereziak izango dira Goiena Telebistan. Eguenean albistegi berezia eskainiko dizuegu; Zaldibarko festagunean grabatutako saioa izango da. Eta *Jaiak 2003* saioko kideek ere egingo dute saio berezia.



## Arrasateko Salbe Solemnea

EGUAZTENA / **20:30**

### San Juan jaietako elizkizun berezia eguazten iluntzean

Salbe Solemnea oso-osorik ikusteko aukera izango dute Goiena Telebistako ikusleek eguazten gauean. Astelehenean grabatuko dugu, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian, eta, esan bezala, osorik eskainiko dugu.



## Reala 'Harmailatik' saioan

ASTELEHENA / **20:30**

### Oñatiko herri lasterketa eta Reala 'Harmailatik' saioan

Realak Anoetan jokatuko duen partiduan GOITBko lantalde bat izango da. Gainera, Oñatiko herri lasterketari jarraipen berezia egingo diogu. Gaur egungo lasterkari onenek hartuko dut parte Oñatiko lasterketan.



## 'Iluntzean': Martxelo Otamendi

DOMEKA / **14:30**

### Martxelo Otamendirekin jardungo dugu solasean

*Iluntzean* saioan Martxelo Otamendi izango da oraingo asteko protagonista. Aintzane Gardoki kazetariak *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendari ohiari egindako elkarrizketa zapatuan eta domekan ikusi ahal izango duzue GOITBn.

## TELEBERRIAK

### Canal Satélite Digital plataformari 26 milioi euro ordaindu beharko dizkio Espainiako Gobernuak

Espainiako Auzitegi Gorenak zigorra ezarri dio Espainiako Gobernuari. Hain justu, Prisa taldeko plataforma digitalari, Canal Satelite Digitali, 26,4 milioi euro (4.400 milioi pezetatik gora) ordaintzera behartu du PPko gobernua. Auzitegi Gorenak hartu duen erabakiak dio Espainiako Gobernuak bere garaian indarrean jarri zuen errege dekretu batek Canal Satélite Digitalen jarduna oztopatu egin zuela eta, hain justu ere, helburu horrekin kaleratu zuela errege dekretu hori, beste plataforma digitalaren –Via Digital– mesedetan. Errege dekretu horren ondorioz, Canal Satélite Digitalek 26.193 harpidedun galdu zituen, besteak beste, merkataritza-gune handietan atzeratu egin zelako Canal Satélite Digital ikusteko behar diren aparailuen komertzializazioa. Kalte horren ordainetan, Espainiako Gobernuak 26,4 milioi euro ordaindu beharko dizkio Polancoren plataforma digitalari.

### Euskaltzaindiak aholkua eskainiko dio EITBri

Euskararen erabilera egokiaren alde, Euskaltzaindiak aholkua eskainiko dio EITBri hemendik aurrera, eta urtean lau txosten osatuko ditu horren gainean. EITBk, ikus-entzunezko komunikabideak tresna dituela, euskararen normalizazioa, sustapena eta erabilera zuzena bultzatuko ditu.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Ekainaren 20tik 26ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 20 | ZAPATUA 21 | DOMEKA 22 | ASTELEHENA 23 | MARTITZENA 24 | EGUAZTENA 25 | EGUENA 26 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Sarrera doan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz Blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Astebete**<br>23:00 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Sarrera doan**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Soinuz Blai**<br>16:00 **Astebete**<br>16:30 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Sarrera doan**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Soinuz Blai**<br>16:00 **Astebete**<br>16:30 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Astebete**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Harmailatik**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Harmailatik tertulia**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Harmailatik tertulia**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Harmailatik tertulia**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:15 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Iparrorratza**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz Blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Iparrorratza**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Soinuz Blai**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz Blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:15 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Salve Solemnea**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Salve Solemnea**<br>24:00 **Gatza eta berakatza**<br>24:15 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Gezi bideak**<br>14:30 **Berriak Arrasate**<br>15:15 **Salve Solemnea**<br>16:45 **Berriak**<br>17:30 **Gatza eta berakatza**<br>18:00 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak Arrasate**<br>20:45 **Jaiak 2003**<br>21:30 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:45 **Jaiak 2003**<br>23:30 **Emisio amaiera** |
| 20:30 **Astebete** | 15:30 **Soinuz Blai** | 15:00 **Iluntzean** | 20:30 **Harmailatik** | 20:30 **Iparrorratza** | 20:30 **Salve solemnea** | 21:15 **Jaiak 2003** |

**GOIENA TELEBISTA** / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



***"Esperientzia pilotua da, baina espero dugu aurrerantzean horrelako saio gehiago egitea. Ideiak falta zaizkigu, eta Goienak jarri beharko ditu ideia horiek".***

**Javier Gantxegi** / Fagorreko presidentea
'BERRIAK' (2003-06-17)



***"Lehenengo aldia da horrelako zerbait gertatzen dena. Realzaleek gaua igaro dute taberna kanpoan. 37 sarrera genituen, eta asko sarrerarik gabe geratu dira".***

**Juan Carlos Dávila** / Monte tabernakoa
'BERRIAK' (2003-06-19)

## TELEBEGI/ Oihana Elorza

### *Tele-futbola*

**Eta horixe gertatzen da asteburuetako iluntze gehienetan, telebistan futbola dagoela, alegia. Eta orduan, tabernara sartu eta gehienak gora begira daudela ikusten duzu. Barran zerbait eskatu, lagunekin hizketan hasi, eskatutakotik trago bat egin, berbetan segi…, eta asko telebistara begira.**

**Izan ere, telebistak badu gaitasun hori, edozer emititu ere jendearen arreta lortzen duela. Are gehiago, futbola botatzen duenean.**

**Igandeetan etxetik kanpo afaltzen dugu sarri lagun batzuk. Eta gehienetan toki bera aukeratzen dugu afaltzeko. Gainera, jantokian ez dago telebistarik. Igandean, ordea, telebistarekin batera afaltzea erabaki genuen. Azken egunotan Realaren inguruan sortu den fenomenoak gure arreta piztu du eta denboraldia amaitzear dagoenean, telebistarekin afaltzen hasi gara. Ni ere erakarri nau tele-futbolaren imanak.**


DENA
€1ean
1 EURO
EROSKi
Grupo Eroski
Erosten Jakin

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko ekainaren 20a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Mikel Maniega/ Pin Pan Pun taldekoa

**Pin Pan Pun taldearekin *gerra* emateko asmotan zabiltzate, ezta?**

Bai. Musika *techno*-arekin, punkarekin eta latindarrarekin fusioa egiten dihardugu. Atera dugun diskoak sei kantu batzen ditu, eta horietako bakoitzak erritmo konkretua du. Txalaparta eta tinbalak ere sartu ditugu.

**Ibilaldian izan zenuten harrera, behintzat, izugarria izan zen.**

Egia esan, bai. Ni nahiko harrituta gelditu nintzen. Eguraldia lagun, izugarrizko jendetza batu zen, eta gustura ikusten ziren.

**Zelan hasi zinen Pin Pan Pun bandan jotzen?**

Zapatuetan, Elgoibarko Udaberri tabernara joaten naiz batzuetan. Han DJ bat egoten da. Egun baten, festa bat egin zuten, eta gonbidatu bezala tinbalak jotzera Axular etorri zen, Pin Pan Pun taldeko kidea. Etsaiak taldeko Auo eta Mexikoko Txanunekin batera antolatu zuten festa. Zapatu hartan Axularrekin harremana egin nuen, eta tronpeta jotzeko gonbidatu ninduen, *Cuba Libre* kanturako oso ondo etorriko nintzaiola-eta. Kubako abestia da hori, baina euskal ukitua eman nahi izan diote.

**Hamalau lagunek osatzen duzue taldea. Eszenatokian baduzue tokirik elkar jo barik jarduteko?**

Bai. (Barreak). Hala ere, ez dugu guztiok batera jarduten.

**Musika lasaiagoa ere gustatzen zaizu, Bergarako Bandan eta Orkestran ere badiharduzu-eta.**

Bai, gustatzen zait. Klasikoa ere gustuko dut, baina gustukoago oraindik latindarra edo erritmo biziagokoa.

**Jo bai, baina estudiatu ere egin duzu tronpeta, goia jo arte. Zazpigarren ikasturtea gainditu duzula esan didate.**

Seigarren mailaraino dut eginda; erdi maila deitzen zaio horri. Iaz, berriz, tronpetako zazpigarren maila egin nuen. Aurten zortzigarren maila egiteko asmoa nuen, baina utzi egin dut.

**Horrez gainera, noizean behin, Madrilera ere bai, eskola batzuk hartzera!**

Patxi Urtzegirekin eskola batzuk hartzen ditut. Dantza musika egiten du hark, eta harekin klasikotik apartatu egiten naiz. *El Show de Flo* eta *Operación Triunfo* saioetan jardun izan du hark, eta oso tronpeta jotzaile ona da.

**Zer du tronpetak, zuri horrenbeste gustatzeko?**

Asmatikoa naiz, eta amak gomendatuta hasi nintzen tronpeta jotzen. Medikuari galdetu zion, eta hark erantzun beharbada ona izan zitekeela. Lehenengo eskolak Bergarako Musika Eskolan hartu nituen, eta poliki-poliki gero eta gustu handiagoa hartu diot instrumentuari.

**DJ bezala jardutea ez duzu nahiago?**

Ez; hori ere probatuta dut, eta nahiago dut tronpeta jo.



**"Musika *techno*-arekin, punkarekin eta latindarrarekin fusioa egiten dihardugu"**

**"Gustuko dut musika klasikoa, baina gustukoago erritmo biziagokoa"**

**"DJ bezala jardun baino nahiago dut tronpeta jo"**

► *Bergararra / 24 urte / Tronpeta jotzailea*

## PIPERRAUTSA

### *Musikaire*

Hauteskundeak pasatu ziren, udalak eratu dira. Ataka larrian jarri gaituzte eta ez da oso panorama ederra geratu, baina moldatzen ari gara, zelanbait, eta Sanjoanak gainean ditugu, eta segidan datoz uda giroa eta oporrak, gozatzeko sasoia. Ondo mereziak ditugu atsedena eta atsegina.

Hain zuzen, plazererako aukera bat abiatuko da gaur Elorrion. Hurrengo sei asteburuetan, era askotako musika, antzerki eta dantza ikusgai izango dira han, hamabost ekitalditan. Programa bikaina eta orekatua prestatu dute Arriolakoek, ohi duten bezala. Aipagarria da hamabost urte bete dituen elkartearen ibilbidea, eta deigarria Elorrion mamitu den kultura zaletasuna.

Orain datoz Udako Jaialdiak, Musikaire. Eta aitzakia honekin mirari bat gertatzen da urtero. Ze, Elorrion, jauregietako lorategiak hormaz inguratuta daude, eta ermitak kaletik aparte. Baina Musikaire iristen denean, hormetan ateak zabaltzen dira eta ermitak hurbilago jartzen. Horrela, edonoren eskura gelditzen dira urtean behin herriko parajerik ederrenak, eta asko dira Elorrion. Betiere, musikaren mesedetan, musikak eragiten duen gozamena areagotzeko.

Kanpoko lagunak gonbidatu izan ditut Musikairera, eta oso pozik itzuli dira. Oraingoan debagoiendar guztioi diotsuet: egin eskapadatxoa Elorriora, bat behintzat, ez zaizue penatuko. Barruan duzue informazioa. Eta doan da.

MIKEL IRIZAR

*Babes eta erosotasun handiagoa*



Kanporako saretak

*Dekorazio aukera guztiak*



Estoreak, errezelak eta saretak

*Eguzki babesa*



Toldoak



VELUX®

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51